

ELKARRIZKETA: DOLORS QUINQUER • ESPERIENTZIA: LIBURU ETA ANTZERKI  
• ESPERIENTZIA: SAKANAKO KOMUNIKAZIO-PLANA • GALDEIDAZUE: FRED A.  
J. KORTHAGEN • PERU-HARRI MUSEOA • ATZEKO ATETIK: NORA IZAGIRRE

**hh**  
hik hasi

**157**

**4 EURO** • 2011KO APIRILA

**EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA**



**GAIA**

**Venezuela, Bolivia eta Nikaragua**

**Kubaren bidetik**

# GURE PERTSONAIAK

BOST LIBURUXKAZ ETA DVD BATEZ  
OSATUTAKO BILDUMA

ANDRES URDANETA



IGNAZIO LOIOLAKOA



MANUEL LARRAMENDI



JOSE MARIA  
IPARRAGIRRE



JOSE MIGEL  
BARANDIARAN



8 URTETIK AURRERA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



elkar

# aurkibidea



**8**  
gaia

## VENEZUELA, BOLIVIA ETA NIKARAGUA

Duela 50 urte izendatu zuten Kuba Analfabetismorik Gabeko Herrialde, eta, haren urratsei jarraituz, Venezuelak, Boliviak eta Nikaraguak izendapen hori lortu dute azken hamarkadan, gobernuak aldatzearekin batera.



**15**  
elkarrizketa

## DOLORS QUINQUER

Hainbat lan talde koordinatzen aritu da, hala nola hizkuntzako ikasgaiak ez diren beste ikasgaitan nola hobetu hizkuntzaren erabilera, ebaluazioa, lan kooperatiboa, giza zientziak...

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**VENEZUELA, BOLIVIA ETA NIKARAGUA**  
KUBAREN BIDETIK

**16** elkarrizketa  
**DOLORS QUINQUER**

**26** esperientziak  
Kubako eta Euskal Herriko haurrak baturik, liburuen eta antzerkien bidez.

**29** ekarpenak  
TILA ez da lasaigarria. *Josu Jimenez Maia*

**30** esperientziak  
Sakanako ikastolen komunikazio-plana. Ikastoletako lana gizarteratuz

**32** galdeidazue  
Zer da garrantzitsuena irakasleak ongi prestatzeko?  
Fred A. J. Korthagen

**35** berriak

**40** nora joango gara?  
Peru-Harri museoa

**42** Atzeko atetik  
Nora Izagirre

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-03-16). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
HIK HASI egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararitzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala apirila

## Hezkuntza aztergai latinoamerikan



**Habanako biltzarrean milaka hezitzailek hezkuntzak nazioen eraikuntzan eta herrien identitatean duen funtsezko zeregina azpimarratu zuten.**

PEDAGOGIA 2011 bi urtez behin Habanan egiten den nazioarteko biltzarra izan zen. Bertan, besteak beste, Mexiko eta Txile arteko Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeek parte hartu zuten. Biltzar hori, duela 25 urte hasi zen antolatzen, hain justu.

Aurreko urteetako biltzarrekin alderatuz, aurtengoan nazioen eraikuntzan eta antolamenduan hezkuntzak duen funtsezko eginkizun baliotsuan ipini dute azpimarra. Munduko txoko horretan hainbat herrialdek bizi duten eraldaketaren eta hezkuntza mailako aupadaren beste adierazle bat, seguruena.

Hezkuntza etorkizunaren eraikuntza espazioa da. Horregatik, hezkuntzak inguruarekin loturak estutu behar ditu. Izan ere, ezagutza ezin da ikasgelakolau hormen artean kateaturik geratu, liburuaren mende. Ezagutzak jendartera atera behar du, haren hobekuntzan eragiteko.

Iberoamerikako Hezkuntza minis-

troaren arabera, adostasuna dago hezkuntza bizitzako arlo eta aldi guztietan esku hartzen duen fenomeno sozializat eta gizatiartat hartzerakoan. Adostasun horren arabera, hezkuntzak bere biziko papera jokatu luke garapen faktore gisa, pertsonen eta familien sustapen sozialaren bultzatzaile gisa, eta kohesio eta integrazio sozio-kultural gisa eta haien herrien identitatearekin lotura duten balioen babesle gisa.

Bizi ditugun garaiek horixe eskatzen dutela azaldu zuten. Izan ere, herrien eta identitateen etorkizuna izan dezakegun ahalmenaren baitan baitago, neurri handi batean. Fidel Castoren arabera, “hezkuntzaren kontzeptuak sustriaietaraino iraultzeko” ahalmenean, zehazki.

Latinoamerikako eta Karibeko herriek hezkuntzaren muinaz eztabaida sakonak espero dituzte, haien herrien etorkizunaren berme diren erroetan oinarritutakoak.

Kubak Boliviarekin, Nikaraguare-

kin, Ekuadorrekin eta Venezuelarekin duen ALBA (Alianza Bolivariana para las Américas) programari esker lortzen ari dira analfabetismotik aske diren lurraldeak izendatzea. Horretarako, “haur bat edo ikasle bat dagoen lekuan hezkuntza egon behar du” printzipioa ezartzeko ahalegin handia egiten ari dira.

Gurean, aspaldi lortutako kontuak lirateke horiek. Hala ere, gure identitatea eta gure balioak babestu eta zabaldu nahi ditugun honetan, ikaspen interesgarriak gerta dakizkiguke Habanan milaka hezitzailek egin dituztenak. Diferentziak alde batera utzita, herri handien ondoan—eta askotan haien oinpean— bizitzera kondenatuta daude, gu gauden antzera.

Latinoamerikan eta Kariben oihartzun egiten ari den deiadarra —“Hezitzaileak hemen! Eta beti kontsekuen te”— zabaldu zen biltzarrean. Haren bozgorailua izan gaitezen Europako herri zahar honetan!

# kronika

Seaskak protestak hasi ditu Frantziako Hezkuntza Ministerioak ezarri nahi dizkien murrizketak salatzeke. Baliabideak murriztearekin batera, kalitatearen kaltean izango dela nabarmendu dute irakasle eta gurasoek. Baliabideak eskastearen ondorioz, ikasleak metatu beharko lirake ikasgeletan. Seaskak salatu duenez, 39 ikasle ere izan litezke gela bakoitzean, eta baldintza horietan oinarri pedagogikoak urratzen direla salatzen dute eta zentroak eskainiko duen kalitatea ezin dutela egoki bermatu deitoratzen dute. Seaskaren bigarren mailako ikastetxei 70 ordu gutxiago eman nahi dizkiete, bi klaseren ordu kopurua. Frantziako Gobernuak iragarri eta Errektoretzak onartu dituen murrizketa horien kontra protestak egin dituzte Baionako Etxepare lizeoan, Ziburuko Piarres Lartzabal kolegioan, Kanboko Xalbadorren, edota Lartzabaleko Erdozaintzin.



## Jaurlaritzak ia hirukoiztu egin du irakasleek ingelesa ikasteko aurrekontua

Datorren ikasturtean 1,6 milioi euro baliatuko ditu Eusko Jaurlaritzak irakasleek ingelesa ikas dezaten, hau da, ikasturte honetako aurrekontua milioi bat eurotan gehitu du, 2010-2011n 600.000 eurokoa izan baita aurrekontua, ia halako hiru izango delarik 2011-2012 ikasturtean.

Isabel Zelaia Hezkuntza sailburuak adierazi du hezkuntza eleanitzak ezin duela itxaron: "Gizarte elebiduna nahi dugu, baina ingelesera zabaltzen dena, hura baita ezagutzaren, zientziaren eta nazioartearen hizkuntza".

Hezkuntza hirueleduna hiru zutabetan oinarritzen du Zelaia: euskara

indartzea, elebitasuna egonkortzea eta ingelesa sustatzea. Hezkuntza eleanitzunak euskarari kalte egiten diola ikusiko balute, eredu hori "berehala" zuzenduko lukeela jakinarazi du sailburuak, oraindik "esperimentazio aldian" daudela argudiatuz.

Eusko Jaurlaritzak eredu berri honen ingelesa ere irakats-hizkuntza bilakatu nahi du, euskara edota gaztelaniarekin batera.

## Lekarozen, 120.000 metro koadro, ingelesa ikasteko

Nafarroako Gobernuak ere ingelesaren aldeko apustua egingo du azken urteetan, eta orain ingelesa irakasteko hizkuntza zentro bat irekitzeko plana aurkeztu du, Lekarozen, Baztanen. Nafarroako Gobernuaren helburua "Lekaroz marka nazioartean ezagun egingo eta hizkuntza irakaskuntzaren erreferente bihurtzea da".

Garai batean barnetegia egon zen inguruetan eraikiko dute zentroa, eta 12.000 koadrotan, 3.000 pertsonak ingelesa ikasteko egonaldiak egingo litzukete, bai irakasleek, ikasleek edo bestelako profesionalak. Umeentzat udalekuak antolatuko dituzte.

Gobernuak 12 milioi euroko inbertsioa egingo du Lekarozko zentroan. Dagoeneko 4,1 milioi gastatu ditu proiektuan.

**"Lehen, Kanpora zigortuta! edo Zure logelara!  
zena; orain, Pentsatzeko txokoan jarriko zaitut  
da. Gaur egun, politikoki zuzenak gara; hau da,  
hipokrita hutsak"**

## Muskilda Tellabide



### **D eredua Nafarroako eremu erdaldunera zabaltzea ukatu du UPNk**

Nafarroako eremu mistoko nahiz eremu erdaldunetako haurrek euskaraz ikasteko eskubidea izan dezaten Alberto Catalan Nafarroako Hezkuntza kontseilariarekin bilera egin dute hainbat gurasok eta Sortzen Ikasbatuazek iragan hilabeteetan, D eredua eremu horietara zabaltzeko. Baina hezkuntza kontseilariak ezezko biribila eman diete Sortzen Ikasbatuazi eta familiei.

Legeak ez du onartzen eremu erdalduneko ikastetxe publiko batean euskaraz irakastea, eta ondorioz, eremu horretan euskaraz ikasi nahi duten umeez kilometro asko egin behar izaten dituzte egunero, eta garraioa, gainera, gurasoek ordaintzen dutelarik.

Sortzen Ikasbatuazeko kideek eta

bilerara joan ziren Arellanoko, Artaxoakoa, Iruñeko Donibane auzoko, Mendigorriako eta Tuterako gurasoek Catalanen bulegoan itxita gelditzea erabaki zuten konponbidea lortu arte, baina foruzainek berehala kaleratu zituzten. Batzarraren helburua herri eta auzo guztietan euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko konpromisoa lortzea zen, baina ez zuten erdietsi. Kontseilariak adierazi zien legea aldatzen ez den bitartean ezin duela ezertxo ere egin.

Sortzen Ikasbatuazek eta guraso taldeak salatu du Nafarroa osoan ingelesez ikasteko eskubidea bai baina euskaraz ikastekoa ez izatea harrigarria dela. Haatik, Nafarroan D ereduan ikasi nahi dutenen kopurua hazi egin da hurrengo ikasturteko matrikulazioari begira, %10.

### **Hezkuntza Legea hauteskunde ostean onartuko dute**

Hezkuntzako oinarrien Nafarroako legea hurrengo legegintzaldian onartzearen alde agertu dira UPN eta Na Bai, eta lege-proiektuari alegazioak jartzeko epea luzatu egingo da horrenbestez.

Alabaina, Nafarroako sozialistek bozen aurretik aldatu nahi dute Nafarroako Hezkuntza Legea, eta Na Baik erantzun dio patxadaz aztertu eta "parte-hartze aktiboa" sustatu behar dela lege proiektu txukun bat onartu ahal izateko.

Haurreskolak partzuergoaren barneko haur eskoletan greba egin dute pasa den martxoaren 22an, EILASek eta LABek deitu eta ELAK babestu duen mobilizazioa jarraitu dute hezitzaileek. Langileek nozitzen duten soldata murrizketa salatzea izan da grebaren helburuetako bat, baina ez bakararra, gurasoei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan izandako murrizketak ere salatu nahi izan dituzte, zerbitzua ez dela ez doakoa eta ez unibertsala deitoratu dute.

Partzuergoak gaur egun 1.550 langile ditu, eta 2003an Eusko Jaurlaritzak eta udalek sortu zutenetik, 0 eta 3 urte arteko haurrei zerbitzua eskaintzen die. Guztira 6.000 ume daude haur eskola hauetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Partzuergoak iaz hainbat murrizketa egin zituen, eta zuzenean eragin die hezitzaileen lan baldintzei. Hauek Hezkuntza Saileko langileek dituzten "egin behar berberak" dituztela diote, eta horrez gain, umeen elikaduraz, higieenez eta atsedenez arduratu behar dutela. Haatik, batzuen eta besteen lan baldintzen arteko aldeak "oso nabarmenak" direla salatzen dute.

# GAIA

## Venezuela, Bolivia eta Nikaragua

*Kubaren bidetik*







**Duela 50 urte izendatu zuten Kuba Analfabetismorik Gabeko Herrialde, eta, haren urratsei jarraituz, Venezuelak, Boliviak eta Nikaraguak izendapen hori lortu dute azken hamarkadan, gobernuak aldatzearekin batera.**

## Alfabetatzea: herrien garapenerako lehen urratsa

Kuba Analfabetismorik Gabeko Herrialde izendatu zutenetik 50 urte igaro direnean, urtemuga hori ospatu du uharteko Pedagogia 2011 Biltzarrak urtaril honetan. Lorpen horixe bera gogoratu zuen Kubako kultura ministro Ena Elsa Velazquezek biltzarraren sarrera ekitaldiko hitzaldian: “Herritar guztien alfabetatzea da herritar guztien arteko berdintasuna bermatzeko lehen pausoa. Mobilizazioari eta herritarren parte-hartzeari esker Kubak analfabetismoa gainditu zuenean hasi zen benetakoa iraultza”.

Kuba ez da jada analfabetismoa gainditu duen Latinoamerikako herrialde bakarra, Venezuelak, Boliviak eta Nikaraguak ere analfabetismoari aurre egitea lortu baitute azken hamarkadan, Kubaren laguntzarekin. Venezuela 2005ean izendatu zuen UNESCOk Analfabetismorik Gabeko Herrialde; Bolivia, 2008an, eta Nikaragua, 2009an. Herrialde batek izendapen hori eskura dezan, biztanleen % 95ek edo gehiagok jakin behar du irakurtzen eta idazten.

Habanako biltzarrean Venezuelako hezitzaileen solasaldiak entzutea aski izan zen, herrialde horrek azken hamarkadan zer-nolako garapena izan duen ikusteko. Ehunka venezuelar bildu dira aurten Pedagogia 2011 Biltzarrean. Horietako asko, helduaroan, 40 bat urterekin, alfabetatu ziren, eta, aurten, txostenak aurkeztu ahal izan dituzte biltzarrean, hezitzaile edo laguntzaile gisa gaur egun beste analfabeto batzuei irakurtzen eta idazten irakasten

izan duten esperientzia azaltzeko. Harro mintzatzen dira irakasle eta hezitzaile venezuelarrak euren lanaz, eta euren herrialdean irakaskuntzak duen prestigioaren erakusgarri da hori; beren misio edo egitekoaren garrantziaz jabetzen diren hezitzaileak dira. “Geure azalean bizi izan ditugu irakurtzen eta idazten jakitearen abantailak, eta bada-kigu zeinen beharrezko den herri osoa alfabetatzea, herrialdeak aurrera egingo badu”, zioen biltzarrean parte hartu zuen hezitzaile batek, Laudelino Hernandez irakasleak.

Kubaren ereduari jarraituz, Venezuelako, Boliviako eta Nikaraguako gobernuak arma gisa ulertzen dute hezkuntza: pobreziatik ateratzeko edo pobrezian ez jausteko arma da, libre izateko arma, herri eta pertsona libre izateko arma. Hurrengo egunetan Venezuelako edota Boliviako ministroek biltzarrean bertan nabarmenduko zuten ideia hori Kubako kultura ministroak aurreratu zuen, lehen eguneko sarrera hitzaldian: “Giza baliabideen kalitatea hobetzeko, demokraziak indartzeko eta ekonomiaren lehiakortasuna handitzeko bide bakarra herritarrek heztea da: hezkuntza da horretarako tresna, herrialde iberoamerikarretako gobernu aurrerakoiek ikusi duten eran”.

Hiru herrialdeek gobernu neoliberaletatik sozialistetara jauzi egin dute azken urteotan, presidentzia aldaketarekin. Venezuelan, 1999an, Hugo Chavez Friasek irabazi zituen hauteskundeak, eta Rafael Calderaren eskuineko



# G

# Venezuela

gobernu neoliberaletik Bolibartar Errepublikan Sozialistarako aldaketa egin zuen herrialdeak. Evo Moralesek 2006an irabazi zituen bozak, eta, azken urteotako joera neoliberalari ateak itxi, eta indigena bat iritsi zen presidentziara lehenengo aldiz. Nikaraguan ere botereak eskuinetik ezkerrera egin zuen, Daniel Ortega sandinistak, 2006. urtean, berriro ere hauteskundeak irabazi zituenean. Somozaren diktadura garaitu zuen iraultza sandinistarekin iritsi zen lehen aldiz Ortega presidentziara, 1990ean. Hiru herrialdeotan, gobernuak aldatzearekin batera, alde batetik, herritar guztiei zuzendutako hezkuntza sistema doako eta derrigorrezkoa ezartzen hasi ziren, eta, bestetik, alfabetatzeko programak zabaldu zituzten.

Kubaren ondoren hiru herrialdeek Analfabetismoari Gabeko Herrialde izatea erdietsi badute ere, analfabetismoaren arazoa, gaur egun, larria da oraindik Latinoamerikako eta Karibeko hainbat herrialdeetan; UNESCOk dioenez, globalizazioak eta krisi ekonomiko orokorrak eragin negatiboa izan dute herrialde horietako hezkuntza sistemetan: 36 milioi pertsona heldu analfabetoak dira gaur egun, oraindik ere, eskualde horretan, bereziki adin nagusikoak, jatorrizko kulturetakoak edo indigenak eta urruneko nekazaritza herrietan bizi direnak. Pobreen eta emakumeen kolektiboak dira, gaur egun ere, analfabetismo tasa handienak biltzen dituztenak, UNESCOk zehaztu duenez.

Guztiz bestelakoak dira Kubako datuak gaur egun, matrikulazio datuek erakusten duten bezala: 0tik 6 urtera bitarteko haurren %99,5 eskolatuta dago, eta Lehen Hezkuntzara joateko adinean dauden haurren %99,7 matrikulatuta dago. 1961ean lortu zuten kubatarrek herrialde osoa alfabetatzea.



## Badezaket: *Yo, sí puedo*

Venezuela, Bolivia eta Nikaragua alfabetatu baldin badira, neurri handi batean Kubako *Yo, sí puedo* metodoari esker izan da. Hamahiru urte egin behar dira atzera alfabetatze lan horretan, horren funtsezko izan den programa horren hastapenetara iristeko. 1998an, Leonela Reylys Diaz Zientzia Pedagogikoetako doktorea buru zuen kubatar pedagogo talde batek ikus-entzunezko programa didaktiko bat garatu zuen, herritarrek alfabetatze zitezen eta oinarriko hezkuntza jaso zezaten. Aipatutako hiru herrialde horiez gain, munduko beste 25 herrialdeetan erabiltzen da gaur egun UNESCOk goraipatutako programa

ma kubatar hori; besteak beste, Ekuadorren, Argentinan, Brasilen, Mexikon, Haitin, Zeelanda Berrian, Ginea Bissauan, Gambian, Nigerian, Namibian edota Kenian.

Programa horrek zenbaki naturalak eta letrak konbinatzen dituzten liburuxekin eta telebistako heziketa programa osagarriekin lortzen du ikasle ikusleek irakurtzen eta idazten ikas dezaten. Liburuxkez eta bideoez gain, ikasleak laguntzaile aditu bat du ikastaro osoan zehar ondoan. Ikasle hori alfabetatuz jotzen da, lagun edo senitar-teko bati gutun bat idazteko gai izatera iristen denean.



## Venezuela, Kubaren bidetik

**1999an Hugo Chavezek hauteskundeak irabazi zituenean, konstituzioa aldatu zuen, eta hauxe ezarri zuen: “Venezuelar guztiek kalitatezko heziketa osoa eta iraunkorra jasotzeko eskubidea dute”, “bal-dintza eta aukera berdintasunean”. **Gastu sozialaren erdia hezkuntzara bideratu zuen, eta herrialdean garatu nahi zuen hezkuntza sistemen oinarriak argi eta garbi ezarri zituen: “Gizaki berri bat, aberri berri bateraiki nahi badugu, bazterketarik gabeko heziketa eskaini behar diegu herritar guztiei, doakoa, kalitatezkoa eta gaur egungo beharrei erantzuten diena”.****

Benetako helburu gisa ezarri zuen Chavezek bere herrialdea Analfabetismo-rik Gabeko Herrialde bilakatzea, eta, konstituzioan ezarritako artikulua praktikara eramanez, 2005ean erdietsi zuen analfabetismoa deuseztatzea. Horretarako, funtsezkoa izan zen Kubaren laguntza; izan ere, ALBA proiektuaren barruan (Alianza Bolivariana para las Americas), hamar urte daramatzate elkarrekin lanean Kubak eta Venezuelak hezkuntza gaietan.

Kubak garatutako Yo, sí puedo programa Robinson misioaren bidez zabaldu du Venezuelak herrialde osora. Herrialdeko bazter guztietan, baina, bereziki, txiroenetan idazten eta irakurtzen irakasteko alfabetizatze misioa da Robinson izenekoa, eta bi zati ditu: Robinson I eta Robinson II. Venezuelako

gobernuak 2003an abiatutako lau misioetarik bat da Robinson; besteak Ribas misioa eta Sucre misioa dira.

Robinson I misioaren baitan, *Yo, sí puedo* programarekin analfabetoak diren pertsona helduei irakasten zaie idazten eta irakurtzen. Izan ere, ia 1960ko hamarkada arte Marcos Perez Jimenez diktadurak (1948-1958) hezkuntza sistematik kanpo uzten zuen herri xehea, eta, hurrengo urteetan hezkuntza sistema demokratizatzeko ahalegin handiak egin baziren ere, hezkuntza ez zen bazter guztietara iritsi; beraz, Chavez gobernura iritsi arte, Venezuelak analfabetismo tasa altuak zituen. Misio horri esker, analfabetismoa % 5etik behera jaitea lortu da, 2 milioi herritarrek baino gehiagok ikasi baitute irakurtzen eta idazten misio ho-

rren bidez. Horietako askok, Robinson II misioaren bidez, seigarren mailara iristea lortu dute, Robinson II ‘Seigarren mailara bitarteko guda’ baita.

Robinson misioek ahalegin berezia egin dute herri indigena alfabetatzeko. Amazonas, Anzoategui, Apure, Bolívar, Delta, Amacuro, Monagas, Sucre edota Zuliako herri indigenetan irakurtzen eta idazten irakastea izan da erronka nagusietako bat. Alfabetatze hori tokian tokiko hizkuntzaren arabera egin dute, eta ikasliburu, bideo eta programa guztiak jivi, ye’kwana, kariñera edota waraoera hizkuntzetara itzuli dituzte. Horrez gain, misioaren beste erronka bat kartzetetan dauden venezuelarrak alfabetatzea izan da, presoek irakurtzen eta idazten irakastea.

Robinson I misioan hasi ziren milioi



# Bolivia

erditik gora ikasle igaro dira Bigarren Hezkuntzara. Horietako asko Ribas misioaren bidez iritsi dira Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikasketak egitera. Aurrera jarraitu nahi duten adin nagusiko ikasleek Sucre misioaren laguntza dute unibertsitateko ikasketak egin ditzaten.

## Pobreziatik ateratzeko tresna

“Menpekotasunari eta ezjakintasunari” lekurik utzi nahi ez dielako ematen dio horrelako garrantzia Venezuelak alfabetatzeari. “Herritar kritikoak sortu nahi ditugu”, azaldu zuen Habanako biltzarrean Venezuelako kultura ministro-orde Pedro Vicente Rodríguezek, eta Venezuelak hezkuntza “ikuspegi sozialetik eta humanistatik” lantzen duela erantsi zuen. “Haurridetasuna, elkartasuna, justizia soziala eta nazioarekin dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dituzten herritarrek sortzea” du helburu hezkuntza sistemak.

Hala ere, hezkuntza eta politika lotzea leporatzen dio Mendebaldeak gaur egun oraindik Venezuelari, baina Adan Chavez Frias hezkuntza ministro ohiak *Hik Hasi*ri esan zionez (116. alean), Venezuelak ez du hezkuntza Mendebaldeak baino gehiago lotzen politikarekin edo sistema ekonomikoarekin. “Hezkuntza eta politika banatu egin behar direla diote. Hala, sistema kapitalista garatzen den neurrian, gero eta sotilago bihurtzen du gezur hori, eskolak politikaren gainetik egon behar duela eta jendarte osoari erantzun behar diola esatean. Haren praktika beste bat baita, gutxi batzuen promoziorako erabiltzea eskola, eta burgesiaren alde eta klase sozialen arteko menpekotasunaren alde egitea”. “Gizarte prestakuntza kapitalistaren aurrean gizarte prestakuntza sozialista” eraiki nahi du

Venezuelak; “ideologia burgesa gainditu eta pertsonaren heziketa soziala eta espirituala landu behar dira”.

Misioetatik aparte ere, hezkuntza sistema arautuan aurrerapauso handiak egin ditu Venezuelak azken hamarkadan, datuek erakusten duten gisan: 1995ean, Rafael Calderaren gobernu neoliberalaren garaian, 10 urtetik gorako herritarren % 51,2 zen alfabetatua, eta hamar urteren ondoren, Chavezen gobernu sozialista bolibartarrarekin, % 99,7. Balioespen kuantitatiboarekin jarraituz, eskuineko ordezkarietatik gaur egunera, % 10 igo da matrikulazioa. Aldaketa nabarmenena 0-3 urte bitartean egin da, lehen haur horien hezkuntza ez baitzuen bere gain hartzen gobernuak, eta, gaur egun, haurren % 43,4 haur eskoletan dago.

Venezuelako hezkuntza sisteman, lau maila bereizten dira: eskolaurrea, oinarrikoa, dibertsifikatua eta goimailakoa. 6 urtetik 20 urtera bitartean, hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da Ve-



nezuelan, baita batxilergoan eta unibertsitatean ere.

Alfabetatzean jarraitzearekin batera, une honetako erronka nagusia Chavezen gobernuarentzat, Lehen Hezkuntzan teknologia berriak sartzea da, eta haurrei eta euren familiei ordenagailu eramangarriak banatu dizkiete, guztira 824.000 oraingoz.

Gaur egun, Venezuela Boliviari eta Nikaraguari laguntzen ari zaie, Robinson misioaren bidez, eta, urtero, ehunka irakasle joaten dira bi herrialde horietara, brigadista gisa.





## Bolivian, irakurtzeagatik begiak atera zizkieten ondorengoak

**Evo Moralesek 2006an Bolivia-ko presidentzia hartu zuen egunetik beretik, analfabetismoari aurre egiteko konpromisoa hartu zuen. Hitz hauek egin zituen Higuerasen, Ernesto Che Guevara hil zuten lekuan bertan: “Irakurtzen eta idazten ikasi zuten lehen aimara eta kitxuei begiak atera zizkieten eta eskuak moztu, inoiz gehiago irakurri eta idatz ez zezaten. Jazarriak izan gara, eta, orain, arazo historiko hori konpontzeko bidearen bila ari gara, baina ez mendekuen bidetik”.**

Bi urteren buruan, UNESCOk Analfabetismorik Gabeko Herrialde izendatu zuen Bolivia, kitxuek, aimarek eta gainerako 34 herri boliviarretako biztanleek irakurtzen eta idazten ikasi baitzuten. Bi urtean 820.000 boliviar nagusi alfabetatu zituzten *Yo, sí puedo* programa kubatarraren eta Robinson I misio venezuelarraren bidez. Horretarako, 126 aditu kubatarren eta 46 venezuelarren laguntza izan zuen Bolivian, eta laguntza materiala ere jaso zuen herrialdeak, telebistak, bideoak eta esku-liburuak bidali baitzizkieten uhartetik.

Roberto Aguilar hezkuntza ministroak 2008ko abenduaren 20a, UNESCOk Analfabetismorik Gabeko Herrialde izendatu zuen egunean “hezkuntza esparruan, Bolivian Errepublikaren historiako garrantzitsuenak” izan zela esan zuen. “Herria alfabetatuz hezkuntza deskolonizatu egin dugu, eta gizakien oinarriko eskubideak aldarri-

katu”. Hezkuntza deskolonizatzeko helburu hori lortzeko, garrantzi handia eman die Roberto Aguilarren ministroak Bolivian jatorrizko hizkuntzei, eta, horregatik, kitxuak beren hizkuntzan graduatu ziren eta aimarek eta guaraniek ere euren hizkuntzetan ikasi ahal izan dute, *Yo, sí puedo* itzuli egin baitzuten.

Alfabetatze kanpainarekin erakutsi zuen bezala, “eskubide sozialetan oinarritutako Bolivia batu eta nazioantuntuna” izan dadin hezkuntza lehenesten duen iraultza demokratiko, baketsu eta kulturalari estu heldu zitzaion Evo Morales, hauteskundeak irabazi zituenean. Presidentzia hartu eta *Yo, sí puedo* kanpaina garatzearekin batera, irakasle, hezitzaile, aditu eta gurasoekin batu zen, boliviar guztiek lekua izango zuten hezkuntza lege bat prestatzen hasteko, eta aurtengo ikasturte honetan bertan abian jarri dute legea.

Avelino Siñani-Elizardo Perez ize-neko legeak 1931n hezkuntza sistema berri bat abiatu zuten bi hezitzaileen izena darama, aurreneko eskola indigenak sortu baitzituzten, kitxua edo aimara hizkuntzetan irakasteak heriotza zigorra zuen urteetan. Garai hartan ere, berebiziko garrantzia zuen irakurtzen eta idazten jakiteak, 1952ra arte alfabetatuek soilik baitzeukaten bozkatzeko eskubidea Bolivian; eta, indigenek ez zekitenez, zuriak bakarrik bozkatzeko zuten.

Lege berriak ordura arteko hezkuntza sistemaren homogeneizazioa hautsi nahi izan du. “Urte askoan, hezkun-

tza elitearentzat izan da Bolivian, eta gehiengoari ukatu egin zaio; homogeneoa izan da, elebakarra eta kultura bakarrekoa, eta ez du onartu Boliviaren hizkuntza eta kultura dibertsitatea”. Horrez gain, Bolivian orain arteko curriculumak zuen “akats handi bati” erremedioa jarri dio gobernu berriak: “Curriculumak hiriko eta nekazaritza giroko haurren heziketa bereizi egiten zuen, eta batzuk Hezkuntza Ministeriotik bideratuak zeuden, eta besteak Nekazaritza Ministeriotik. Hori izan da Bolivian hezkuntzaren porrot handiena”. Gaur egun, hori guztiz aldatu dute, eta curriculum osoak ikuspegi indigena ere bere barruan hartzen du.

Helburu argi bat du gaur egun Bolivian hezkuntzari dagokionez: “Hezi beharra daukagu libre izan gaiten, analfabetismoak mende askoan menpeko izatea ekarri baitigu”.

Hezkuntza sistemaren egiturari dagokionez, Evo Moralesen gobernuarekin, haur hezkuntza, helduen hezkuntza eta heziketa berezia Estatuak bere gain hartu ditu lehen aldiz, lehen familiaren, elizaren edo elkarte pribatuen esku baitzegoen. Avelino Siñani-Elizardo Perez legearekin, gainera, Bigarren Hezkuntzako ikasketak ere derrigorrezkoak eta doakoak dira Bolivian lehenengo aldiz, orain arte Lehen Hezkuntza soilik baitzen derrigorrezkoa. Lau mailatan bereizten da Bolivian hezkuntza sistema: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Goi Mailako Hezkuntza.

# Nikaragua

## Nikaraguan, sandinisten itzulera

**Venezuelan eta Bolivian bezala, hezkuntzak eta, bereziki, alfabetatzeak lehentasun handia du Nikaraguako gaur egungo gobernuarentzat. Daniel Ortega presidentea honela mintzatu da, 2011ko ikasturteari hasiera ematean: “Etorkizunik bada, ikasleen esku dago etorkizuna, haiek eraldatuko dute Nikaragua”.**

*Hik Hasi* Nikaraguako Hezkuntza Ministerioan lan egiten duen Nancy Calero irakaslearekin mintzatu zen Kuban, eta Ortega presidentearen iritziberkoa da: “Herrialdeak aldaketa kultural eta ekonomikoaren premia larria du, eta hori gertatuko bada, kalitatezko hezkuntza jaso behar du herri osoak”.

2009an lortu zuen Nikaraguak Analfabetismoarik Gabeko Herrialde izendatzea; baina esparru horretan egiten zuen bigarren saioa zen hura, 1980an, lehen gobernu sandinistak abiatu zuen Alfabetatzeko Gurutzada Nazionalari esker, herrialdea alfabetatzea lortu baitzuen gobernuak. 1980aren aurretik, nikaraguarren %53k ez zekien irakurtzen eta idazten, eta, sinatzen bakarrik zekitenen kopurua gehituz gero, analfabetismo tasa % 60koa zen, Somozaren diktadura garaiko Nikaraguan.

Calero irakaslea eskuadraburu izan zen gurutzada horretan, eta herriz herri haurrak zein helduak alfabetatzen arituz: “Gurutzadari esker alfabetatu ziren ikasle horietako asko mediku, ingeniari, irakasle edo teknikari izatera iritsi ziren; baina beste askori, utzikieriaz,



ahaztu egin zaie irakurtzen eta idazten denborak aurrera egin ahala”. Bi gobernu sandinisten artean boterean izan diren Violeta Chamorro, Arnaldo Aleman eta Enrique Bolañosen alderdi neoliberalak egiten ditu “utzikeria” horren arduradun irakasleak: “Batetik, hezkuntza pribatizatu egin zuten, eta gehienak eskolara joateko baliabiderik gabe gelditu ziren; bestetik, alfabetatzeari gobernu sandinistak eman zion garrantzirik ez zioten eman gobernu neoliberalak, eta jendeak ere garrantzia kendu zion”.

2006. urtean, fronte sandinista berriro boterera iristean, analfabetismo tasa altua aurkitu zuen: 2006ko erroldaren arabera, 5,1 milioi nikaraguarretatik 1.224.000k ez zekiten ez irakurtzen eta ezta idazten ere, eta, ondorioz, gobernuak plan estrategikoa abian jarri zuen, Kubaren eta Venezuelaren laguntzarekin: *De Fidel a Martí* izeneko

programa abiatu zuten 2006an, Fidel Castro eta Jose Martiren omenez. *Yo, sí puedo* metodoari esker, Nikaraguaren analfabetismo tasa % 24tik % 3,4ra jaitsi dute.

Venezuelan eta Bolivian bezala, ikasle bakoitzari bere ama hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikasteko aukera eman diote sandinistek, tokian tokiko jatorrizko hizkuntzetara itzulirik telebistako programak nahiz eskuliburuak.

Hemendik aurrera, eta 2015a baino lehen, 6 urtetik 12 urtera bitarteko haur guztiek Lehen Hezkuntza jasotzea da orain Nikaraguaren helburua, eta kubatarren *Yo si puedo seguir* eta venezuelarren Robinson II misioen laguntza izango dute horretarako. Dagoeneko 62.000 nikaraguar dira *Yo sí puedo* programatik *Yo sí puedo* seguir programara igaro, eta seigarren mailara iritsi direnak.



### Pobreziatik ateratzeko tresna

Erick Mairena hezkuntza ministroak argi du Nikaragua pobreziatik aterako duen tresna hezkuntza dela, eta, era berean, gaur egun pobrezia dela hezkuntzaren etsai nagusia Nikaraguan: Nazio Batuen Erakundearen arabera, Nikaraguako biztanleen % 46,2 pobrea da. Estatistika horren arabera, haur txi-roak, batez beste, 2,2 urtez joaten dira eskolara, eta pobre ez direnak, berriz, 5,5 urtez. Lehen Hezkuntzan hasten diren hamar haurretatik lauk bakarrik gainditzen dute seigarren maila. Bigarren Hezkuntzako datuak are okerragoak dira, adin horretako ikasleen hamarretik lau bakarrik baitoaz Bigarren Hezkuntzako eskoletara. Nikaraguako gobernuak onartzen duenez, 300.000 haurrek, gaur egun, etxetik kanpo lan egiten dute eta ez dira eskolara joaten. Calero irakaslearen arabera, haurrak ez eskolatzeko beste arrazoietako bat Nikaraguak bizi duen emigrazioa da, haurren kopuru handi batek gurasoak atzerrian baititu lanean: “Haurrek erreferenterik ez badute, eskolaren garrantzia transmitituko dien inor ez badute, ez dute eskolara joateko beharrik sentitzen, eta ez dira joaten”.

Datu horiek ikusita, *De Fidel a*

*Martí* alfabetatze kanpaina erabat burutzearekin batera, oinarritzko eta erdi mailako hezkuntzak sendotzea da, gaur egun, Nikaraguako Hezkuntza Ministerioaren erronka nagusia. Hiru urteko prestakuntza lanen ondoren, iaizko ikasturtean Hezkuntza Sistema Berria estreinatu zuten, “berdintasunean eta zuzentasunean oinarritutako hezkuntza” helburu duen sistema. Plan estrategiko horren bidez, “eskolara ez doan haurrari eskola eramango zaio hura dagoen lekura”, Calera irakasleak azaldu duenez. “Nekazaritza giroko

komunitateetara joan gara, autoz ezin denean idiekin edo astoarekin, eta benetako beharra duten haurren errolda egin da, eskolara joateko behar dituzten material guztiak—galtzerdi eta oinetakoak, galtzak, gonak eta arropa guztiak, nahiz liburu eta motxilak— doan jarri dizkie eskura Estatuak eskolara joan daitezten”, Nikaraguako Konstituzioko 121. artikulua Estatuak nikaraguar guztien hezkuntza bermatzeko obligazioa duela baitio.

### Irakasleen garrantzia

Kuba Analfabetismorik Gabeko Herrialdea izendatu zutenetik 50 urte igaro direla gogoratuz hasi zuen Pedagogia 2011 Biltzarreko sarrera ekitaldiko hitzaldia Kubako hezkuntza ministroak, eta hezitzaile eta irakasleen garrantzia azpimarratu zuen amaitzeko: “Kubak eta gure herrialdeek aurrera egin dezaten nahi badugu, irakasleen prestakuntzan ere etengabe egin behar dugu aurrera. Euren lana guztiz estrategikoa da ikasleen nortasuna eraikitzeko garaian, gizaki bakoitzarengan eragiten baitu irakasleak”.



# dolors quinquer

## *ELKARRIZKETA*

Institutuko katedraduna eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Argó programaren arduraduna

“Ikasleak irakurle kritikoak izatea garrantzitsua da sarean dagoen informazio guztiarekin. Hori ikasi egiten da, eta horretarako, hezi egin behar ditugu”





# dolors quinquer

E

“Hizkuntza gaitasunak hobetzeko erantzukizunak irakasle guztien artean partekatua izan behar du; ez Hizkuntza ikasgaiko irakaslearen egitekoa, soilik. Matematikari, musikari edo zientziei buruz hitz egiten, irakurtzen eta idazten non ikasten da? Ikasgai horiei buruzko eskola orduetan”

”

Institutuko katedraduna da Dolors Quinquer Vilamitjana eta 18 urte daramatza Kataluniako hainbat institututan lanean. Horrez gain, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan ere aritu da hainbat arlotan: Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntzan (Giza Zientzien Didaktika Sailean), Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza iraunkorrean (Hezkuntzaren Zientzien Institutuan), unibertsitateko irakasleen prestakuntzan (Berrikuntza eta Unibertsitateko Irakaskuntzako Programa) eta 2003az geroztik Argó Programaren arduraduna da. Programa horren helburua unibertsitatearen eta Bigarren Hezkuntzaren arteko zubi izatea da.

Hainbat lan talde koordinatzen aritu da, hala nola hizkuntzako ikasgaiak ez diren beste ikasgaitan nola hobetu hizkuntzaren erabilera, ebaluazioa, lan kooperatiboa, giza zientziak...

Bere ibilbide osoan ikasi duena praktikan jartzeaz gain, esperientzia eta ezaguera hori zabaltzen aritzen da. Arrazoi horrek ekarri du Euskal Herrira Irungo Berritzeguneak gonbidatuta. Aukera hori baliatu dugu berarekin egoteko eta buru-belarri dabilen proiektu berritzaileei buruz hitz egiteko.



**Ikasleek euren hizkuntza gaitasunak hobetzeko eta hainbat ikasgaitako edukiak hobeto eta gehiago ikasteko balio duen eredu didaktiko bat proposatzen diguzu. Zertan datza proiektuak?**

“Eredu komunikatzailea” deitzea gustatzen zaidan eredu didaktikoa da. Izan ere, alderdi hori azpimarratzen du eta izen hori jarri zion Jean Cardinetek. Eredu horrek hainbat alderdi hartzen ditu kontuan: hizkuntza gaitasunak hobetzea, metodo interaktiboak eta kooperatiboak erabiltzea, ikaskuntzarako autonomia lantzea, ebaluazioa irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazio tresna gisa erabiltzea...

Proposamen horretan, irakaskuntza prozesuaz ari garelarik, oinarri-oinarrizko gakoa da komunikazioa hobetzea. Irakastea eta ikastea irakaslearen eta ikaslearen euren arteko komunikazio prozesu gisa ulertzen da. Hori gelan sortzen da, testuinguru sozial batean, eta ikasleak hainbat eduki, gaitasun, estrategia, balio eta abar bereganatzen ditu. Era berean, prozesuaren kontrola eta erantzukizuna irakaslearengandik ikaslearengana pasatzen da poliki-poliki. Hortik dator auto-ebaluazioa eta ikasteko sistema propio bat garatzearen garrantzia.

Adibide bat jarriko dut. Aurre-historia (DBH 1) urrun gelditzen den gaia da eta zaila da testuinguru egoki bat eman eta gertuko bihurtzea. Lehenbiziko galdera soilik azalduko dizuet: *“Trudika ezazu Brasilgo Nekazaritza Ministerioko funtzionarioa zarela. Amazoniako oihanera joango den talde bateko partaide izateko eskatzen dizute. Talde horrek ebizatik eta bilketatik bizi den herri batekin jarri behar du*

barremanetan. Zure egitekoa nekazaritzaren omurak azaltzea da. Zer esango zenieke? Zer uste duzu erantzungo luketela?”. Ikasleen hasierako arrazoiak eta adierazpenak jasotzea interesatzen zaigu, inolako esku-hartzerik gabe. Emaizta oso interesgarria da: irakasleak ematen dien informazioak sortzen dizkien sinesmenak eta uste okerrak ikusten eta azaleratzen laguntzen du, horrek ikastea zailtzen dielarik. Hurrengo eskola orduetan hasierako ideiak zalantzan jarriko ditugu eta informazio berria emango zaie hasierako ikuspegia berrikus dezaten eta gaur egun adituek ematen dizkiguten azalpenetara hurbil daitezten. Ikusten duzuen moduan, ereduaren abiapuntua teoria soziokulturalak eta eraikitzaileak dira. Baina ez da horretara mugatzen, alderdi gehiago ditu.

**“Eredu komunikatiboak” hainbat alderdi dituela aipatu duzu. Ikus dezagun zer proposatzen duzun horietako bakoitzean. Lehenbizi, hizkuntza gaitasunak hobetzea aipatu duzu. Zer hartzen da kontuan arlo honetan?**

Gauza jakina da ikasle askok zailtasunak dituztela ahoz zein idatziz espresatzeko. Haatik, hizkuntza behar-beharrezkoa da komunikatzeko eta partekatzeke, eraikitzeke eta berregituratzeko, eta, batez ere, oso garrantzitsua da pentsamendurekin duen loturagatik. Hizkuntzak gauzei izena jartzeko eta “pentsatzea” ahalbidetzen du. Horregatik, eta ikasgai bakoitzaren berezitasunengatik, hizkuntza gaitasunak hobetzeko erantzukizunak irakasle guztien artean partekatua izan behar du, ez hizkuntza ikasgaiko irakaslearen egitekoa soilik. Matematikari, musikari edo zientzietan buruz hitz egiten, irakurtzen eta idazten non ikasten da? Ikasgai horiei buruzko eskola orduetan.

Adibide bat jarriko dut. Irakurketa ezinbesteko ikasketa da eta Lehen Hezkuntzan hasi arren, Bigarren Hezkuntzan jarraitu egin behar da. Horregatik, irakasleek eta ikasleek elkarrekin erabaki behar dute nola egin eta zer egin



hobeto irakurtzeko: irakurtzen hasi aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren nola egin barneratu, eta noski, testu interesgarriak irakurri matematikako edo historiako eskoletan. Beti ikasten diren edukiekin erlazioztatukoak. Eta pentsaraztera bultzatzen duten galderak egin, ez erreproduzitzailerak soilik. Irakurketa kooperatiboaren moduko estrategiak erabiltzeak ere aukera asko eskaintzen ditu.

Era berean, oso garrantzitsua da ikasleekin hainbat aditzen definizioa adostea: zer da deskribatzea, argumetatzea, azaltzea, justifikatzea...? Hau da, zer eskatzen diegu kasu bakoitzean? Ezin zaie esan: “azal ezazu prozesu hau, zergatia eta justifika ezazu erantzuna”. Oso esaldi txarra da. Irakasleak hausnartu egin beharko luke zer eta nola eskatzen duen eta zehatzagoa izan beharko luke aditz horien definizioarekiko.

Nik lehen linboan sinesten nuen. Ikasleei “azaldu, konparatu edo deskribatu” esaten nienean, pentsatzen nuen ikasleek definituta zeukatela beren buruan hori zer zen, bazekitela zer eskatzen nien eta ez zela beharrezkoa inolako argibiderik ematea. Galdera ulertzen zutela pentsatzen nuen. Norbait, mementoren batean –linboan– azaldu ziela uste nuen. Baina hori ez zela horrela konturatu nintzen. Alegia, kasu bakoitzean zer nahi dugun azaldu eta partekatu behar dela eurekin.

Gainera, J. M. Adam hizkuntzala-

riak ezarritako testuen ereduari esker, badakigu deskribapen, azalpen edo argudio on batek nolako izan behar duen eta adibideak jar ditzakegu. Argudio testu on bat idatz dezaten nahi baduzu, ereduak eta informazioa eman behar zaizkie, eta gainera, testu hori idazteko egokia den testuingurua sortu behar da, hau da, ekintzari zentzua emango dion motibo bat.

Nik uste dut, alderdi linguistiko horiek lantzen baditugu, pentsamendua garatzen dugula eta hobeto ikas dezaten laguntzen diegula, betiere edukiari eta hizkuntzari lotuz.

**Eredu bakar batek balio al du ikasgai guztietarako? Adibidez, argudio testu eredu berbera erabiltzen al da matematikan eta giza zientzietan?**

Zuzenbidean lizentziatua denak legegari buruzko galderak egiteko modu bat ikasten du; sintaxi zehatz bat, lexiko konkretu bat, gramatika propioa... ditu. “Abokatu batek bezala hitz egiten du” esan ohi dugu. Edukia eta forma ikasi ditu. Medikuek medikuek bezala hitz egiten eta idazten dute. Nik historia ikasi nuenean, historialarien idazteko ereduak ikasi nituen, haiek bezala idazten ikasi nuen, imitatu egin nituen. Eta hausnartu gabe ikasi nuen haiek bezala idazten. Baina, orain, konturatzen naiz beste modu batera ikasteak dituen aukerez.

Edukia eta forma aldi berean ikas-

# dolors quinquer

E

“ Abiapuntua ez da ikasleei ikasi beharreko azalpen bat ematea eta hori aplikatzeko ariketak egitea. Baizik eta galdera bat edo egoera bat planteatzea eta pentsatzen, bilatzen, ikertzen, antolatzen, galderak egiten... uztea. Eta azkenean, hori guztia antolatzea. Prozesu bat da. Eta hori egiteko oso interesgarria da lan kooperatiboa: elkarrekintzan eta elkarri laguntzen aritzen diren talde txikiak osatzea ”

ten direla nioen. Esate baterako, paisaje baten deskribapena ez da berdina izango geografiako eskola orduan edo hizkuntzako eskola orduan egin. Aldiz, testuaren tipologia, forma... berberak izango dira: esaldi motzak, predikati-boak, ondoriozkoak edo koordinatuak...

Gainera, mapa bati buruzko komentarioa eta grafiko bati, argazki bati... buruzkoa antzekoak dira: sarrera, deskribapena eta azalpena. Beraz, horietako eredu bat ikasia baldin badaukazu, gainerakoak errazago ikasten dira, egitura berbera baitute eta idatzi beharreko testuak egitura gramatikal berbera baitu. Zoragarria da. Beste testuetarako ere balio duen egitura bat ikasi duzu.

Eta hori edukiekin lotu behar da. Hizkuntzako irakasle zen lagun bat azalpen testuak lantzen ari zen. Horretarako, Giza Zientzietako testuak erabiltzen zituen. Testu horiekin gero zer egiten zuen galdetu nion nik. Ez zuela ezer egiten esan zidan, berari testuak nola antolatuta zeuden interesatzen zitzaiola, ez edukia. Niri alferrik galtzea iruditzen zait. Zeren, behin formari begiratzen ari zarela, eman edukiari ere erabilera bat, gai bat ikasteko behar duzun informazioarekin lotuta egon dadila. Hark eredu gisa erabili zituen testuek ez zuten inolako erabilerarik edukiaren aldetik.

## **Gaur egun konpetentziei garrantzi gehiago ematen zaie edukiari baino. Zer iruditzen zaizu?**

Azken batean, konpetentziak edukiak dira. Lan kooperatiboa jarriko dut adibidetzat. Konpetentzietatik hitz egiten hasi aurretik, lan kooperatiboa gela antolatzeko modu bat zen. Gaur egun, konpetentzia da. Zergatik? Nola garatzen dituzu gaitasun sozialak, adierazkortasuna, gainerakoekin erlazionatzeko gaitasuna, partekatze gaitasuna...? Bada, modu bat kooperatiboki lan egitea da. Hau da, lehen hautazko zerbait zena orain zerbait zentrala bihurtu da. Gauza bera gertatzen da hizkuntza gaitasunekin.



Gai-

nera, konpetentziak ezin dira ikasi edukirik gabe. Ordenagailuaren adibideak hori hobeto ulertzeko balio dezake. Gaitasun kognitiboak ordenagailuaren *hardware*-a bezalakoak dira. Ordenagailu batek gaitasun zehatz bat dauka, eta horren arabera, programa batzuk sartzen dira eta beste batzuk ez. Guri gauza bera gertatzen zaigu. Gaitasun bat daukagu, baina horrek ez du funtzionatzen edukirik jartzen ez badiogu. Gaitasun horrek ez du ezertarako balio informazio paketeak jartzen ez badizkiogu (*software*). Edukirik gabe bestea ez da existitzen. Dialektikoa da. Edukiak behar dira gaitasunak garatzeko. Eta gaitasunekin edukiak garatzen ditugu. Dialektikoa da.

Horrez gain, ezagutza gutxietsi egiten dela ere uste dut. Bai, konturatzen naiz horretaz.

## **Zer esan nahi duzu ezagutza gutxietsi egiten dela diozunean?**

Adibidez, testu bat irakurtzen denean, irakurleak ematen du informazioaren zati handi bat, irakurtzen duenak. Orduan, irakurle horrek ez baldin badaki hitzek eta kontzeptuek zer esan nahi duten, ez du testua ulertzen. Hau da, ezin da ulertuz irakurri, baldin eta aurretik informaziorik ez baldin baduzu. Nik neuk fisika kuantikako testu bat irakur nezakeen, baina ez nuke ezertxo ere ulertuko kontzeptuak falta zaizkidalako.

Harritu egiten nau ikasleen irakur abiadura neurtu nahi izateak. Zertarako balio du irakurketa abiadurak? Ongi dago azkar irakurtzea, entonatu... baina, helburua ulermena da. Irakurleak hiztegia ulertu behar du eta egoera ulertzeko edo testuingurua ulertzeko

gakoen edo patroien egitura mentalak eduki behar ditu. Patroirik gabe ez duzu ezer ulertzen. Oso argigarria da 70eko hamarkadan ikerlari amerikar batzuek egin zuten esperimentu zahar bat. Testu berbera eman zieten hiru talderi. Lehenengo taldeari testua izenburu eta guzti eman zioten: "garbigailua erabiltzeko argibideak". Talde osoak ulertu zuen, ez zen inolako arazorik egon. Bigarren taldeari testua izenbururik gabe eman zioten. Ez zuten ulertu. Orduan, izenburua eman eta ulertu egin zuten. Hirugarren taldeari ez zioten izenbururik eman eta ez zuten ulertu. Izenburuan dago gakoa, izenburuak ematen du patroia.

Testu hori sarritan erabili dut irakasleekin eta beti gauza bera gertatzen da; ez dute ulertzen testuingururik gabe, harik eta gakoa ematen dieran arte, hots, izenburua. Buru eskema horiek behar ditugu (egoerak, munduaren ezagutza, gauzen ezagutza...) testua ulertzeko. Eta gero, kontzeptuak. Testuko hitz asko ez badituzu ezagutzen, edukiak alde egiten dizu. Horrexegatik, ikasleek, ezagutzarik ez baldin badute, ez dute inoiz ere ulertzeko moduan irakurriko.

Zenbait adinetan neska-mutilek eta gaztetxoek ikasteko gogo handia izaten dute. Uste dut une hori aprobetxatu beharko litzatekeela, hau da, euren jakin-minarekin lotura duten ikaskuntza egoerak eskaini beharko litzazkiekeela. Zientzietako, naturako, geografiko, historiako... informazioa eman beharko litzazieke. Jakin-mineko une hori aprobetxatu beharko litzateke, une horretan informazioa oso erraz barnertzen baitute. Eta gero, horrek beste gauza batzuetarako balio du, geroago informazio berria prozesatzeko.

### **Hizkuntza gaitasunei buruz hitz egin dugu. Baina proposatzen dugu eredu didaktikoak alderdi gehiago ere baditu. Hitz egiguzu horiei buruz.**

Bai, hala da. Beste alderdi garrantzitsu bat lan kooperatiboa da, berdin artean hitz egitea argudiatuz, ideiak de-



fendatuz... Iritzi truke horrek erraztu egiten du fenomeno bati buruzko ulermena. Horrez gain, oso komenigarria da ikasleak ekintzaren erdigune izatea. Hau da, gelan ez dadila nagusitu irakaslearen aurkezpena, non azalpenak eman eta ikasleak ariketak egitera mugatzen diren. Izan dadila ikasleei helburu intelektual txikiak planteatzen zaizkien eskola ordua. Hau da, arazotetan, egoeratan, galde-erantzunetan... oinarritutako ikaskuntza.

Horrekin batera, garrantzi handia ematen diogu berdin arteko ikaskuntzari. Beti erabili behar ditugu ikaslearen arteko elkarrekintzak bultzatzen dituzten metodoak. Zeren, asko ikasten baita berdin artean, besteei la-

gunduz eta besteengandik laguntza jasoz. Ezagutzaren eta norberaren arteko bitartekaritza adin bereko batek ere egin dezake. Berdin arteko ikaskuntza hori oso indartsua da behar den moduan bultzatzen bada.

### **Nola bultzatzen da berdin arteko ikaskuntza behar den moduan?**

Abiapuntua ez da ikasleei ikasi beharreko azalpen bat ematea eta hori aplikatzeko ariketak egitea. Baizik eta galdera bat edo egoera bat planteatzea eta pentsatzen, bilatzen, ikertzen, antolatzen, galderak egiten... uztea. Eta azkenean, hori guztia antolatzea. Prozesu bat da. Eta hori egiteko oso interes-

“ Lehen zailtasunak agertzen direnean esku hartzen ez bada, gero eta zulo handiagoa sortzen joaten da, azkenean porrotera eta eskola uztera iritsi arte. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleek berehalako laguntza behar dute, bestela, galdu egiten dira

”

garria da lan kooperatiboa: elkarrekin-tzan eta elkarri laguntzen diren talde txikiak osatzea.

### **Horrek guztiak autonomia garatzen eta ikasteko metodoa hobetzen laguntzen al du?**

Bai, baina laguntzekin. Hau da, ikasleari ikasteko sistema propio bat garatzen lagundu behar zaio, pixkana-pixkana hobetuz, sistema hori eutsiko duten jarraibidedun aldamiio batekin. Lehendabizi, eskaera zein den ulertzen lagundu behar zaio, zer den eskatzen zaiona; eta gero, aurreikusten eta egin aurretik planifikatzen. Pertsona adituek, zerbait egin aurretik, planifikatu egiten dute: zer da eskatzen didatena eta zer egingo dut. Ikasle askok ez daki-te planifikatzen eta eskoletan ere ez da irakasten. Horregatik, horretarako, orientazio oinarriak erabiltzen ditugu: zeregin bat egiten hasi aurretik zer egingo duten, zer pauso jarraituko dituzten eta zein ordenetan emango dituzten jakiteko tresna batzuk dira. Benetan oso erabilgarriak dira eta horrela prozesua automatizatu egiten da, “ikasten ikasi” delakoaren erremintak dira.

### **Ebaluazioa. Metodo didaktiko honek ebaluazioan ere aldaketak ekarriko dituela pentsatzen dugu.**

Bai, noski. Ebaluazio ekintzak prozesuan barneratzen dira eta ikasketa ekintza bihurtzen dira. Oso erabilgarriak dira irakaslearentzat ikasleei gauzak nola egin behar dituzten adierazteko, eta gauzak zergatik dauden gaizki edo ongi esateko. Normalean irakasleek ebaluazioa prozesuaren amaieran erabiltzen dute, emaitza ona edo txarra den esateko. Aldiz, guk beste modu batera jokatzeko proposatzen dugu. Irakasleak ebaluatzeke zein irizpide erabiltzen dituen azaltzen badie ikasleei eta haiekin partekatzen baditu oraindik esku arteko lana egiten ari direnean, balio handiko ikasketa erreminta bat bihurtzen da. Ikasleari ikasteko asko balio dion zerbait eman dio.

Eginkizun bat ongi dago baldin eta



bal-dintza batzuk betetzen baldin baditu, horiek identifikatzen baldin badira eta ikasleak bereganatzen baldin baditu. Horrela askoz ere azkarrago aurreratzen da. Irakasleak ikasleekin partekatzen baldin badu jarraituko duen araua eta zer begiratzen duen zuzentzen duenean, ebaluazio irizpideak ikasteko laguntza handian bihurtzen dira. Eta gainera, notaren gaineko berrikuspenak amaitu egiten dira horrela. Beste kontu bat konpetentzien curriculumeko azken ebaluazioa da. Baina, gai horrek beste elkarrizketa baterako ematen du.

### **Irakasleek sinesten al dute eredu didaktiko honetan? Praktikan martxan jartzen al dute?**

Nik uste dut ereduaren borondatea ikusten dutela. Baina programek proposatzen dituzten eduki kantitateak gainezka egiten diete. Nahiz eta prestakuntza aldetik esan hori ez dela hain garrantzitsua, programa asko bete behar duten uste osoa dute. Eta noski, programa asko betetzeko modua azalpena da, nahiz eta ikasten dutena azalekoa izan eta berehala ahaztu. Bigarren Hezkuntzako eskolen antolaketa taylorista edo lantegietakoa ere oztupo bat da.

### **Selektibitateak eragin al dezake presio horretan?**

Selektibitatea ere aldatzen ari da. Orain dela gutxi Zientzietako proba interesgarri bat ikusten aritu nintzen. Irrati programa bateko elkarrizketa baten transkripzioa zen. Bi pertsonen artekoa, bata zientzialaria eta bestea ez. Sumendiei, tsunamiei eta horrelako gaiak buruz ari ziren eztabaidan. Bakoitzak bere argudioak eta ikuspegia azaltzen zituen. Ikasleei ematen zituzten baieztapen haiekin zeinekin zeuden ados

eta zeinekin ez identifikatzeko eskatzen zitzairen, eta justifikatzea zergatik. Hau da, lehen aipatu duguna eskatzen zitzairen, testuinguru batetik abiatutako eredu zientifikoa erabiltzeko eskatzen zitzairen. Selektibitate datorkigun mezu hori ona da.

### **Eskola porrota. Kezkatzen zaituen gaia al da?**

Dudarik gabe, arazo larria eta heltzeko zaila da. Eskola arazoak 10 urterekin agertu ohi dira eta 16 urtera arte hazten joaten dira. Eskolarekiko interes galtzea eta asmo gaiztoen prozesua gero eta handiagoa da eta progresio geometrikoan hazten da. Lehen zailtasunak agertzen direnean esku hartzen ez bada, gero eta zulo handiagoa sortzen joaten da, azkenean porrotera eta eskola uztera iritsi arte. Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleek berehalako laguntza behar dute, bestela, galdu egiten dira. DBHra pasatzen direnean, kasu askotan beranduegi izaten da. Sistemak garaiz antzemateko eta garaiz laguntzeko arduratu beharko luke. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako aldaketa ongi egitea ere garrantzitsua da. Jarraipena funtsezkoa da: oinarriko kompetentziei buruzko ulermena partekatu, ebaluazio kriterioak partekatu...

Katalunian, DBHko zenbait zentrotan, ikasleen herenak baino gehiagok porrot egiten du. Asko da eta eskola publikoan arazoa areagotu egiten da, zeina asistentziala bihurtzen ari den. Izan ere, bertako ikasleek ikasketa maila arazoitsua lortzea nahi baldin bada, giza baliabide eta baliabide tekniko eta material asko behar dira. Herena gehiegi da. Oso zaila da jarraitzen ez duen, irakurtzen duena ulertzen ez duen, zailtasunez idazten duen ikasleen herenarekin gela batean lan egitea.

### **Zer beharko lukete berriro ikasteko eta ulertzeko eta zailtasunak gainditzeko?**

Bifaktore bereiz ditzakegu: familiarri lotutakoak eta eskolari lotutakoak. Gauza jakina da alderdi sozioekonomi-



koek eta kulturek garrantzi handia dutela eskola porrotean, nahiz eta aukera berdintasunean indarra egin. Perrenaud-en arabera, "familien kapital kultural gabeziak eskola proiektuan eragin egiten du". Amaren (edo familia-ko erreferentziako pertsonaren) ikasketa mailaren eta eskola arrakastaren arteko korrelazioa ere ezaguna da.

Beste aldetik, porrota ez da homogeneoa. % 15arentzat gutxi gorabehera, errehabilitazioa eskolaren esku dago: bere antolaketa, harrerazko egiturak eta irakasle talde indartsuak, hartzen diren neurri berdintzaileak, esko-

lako metodologia, familiaren laguntza eta bere kapital kulturala. Beste % 10arentzat askoz ere aldaketa handiagoa beharko litzateke heziketa kulturalan. Eta gainerakoarentzat, uste dut oraingoz sistemak erantzun gutxi dituela beraien arazoentzat.

Beste herrialde batzuetan alderdi soziokulturek ez daukate hainbeste pisurik. Hitzaldi batean, Andres Schlicher-ek (OCDEko Hezkuntza zuzendaria) hiru faktore aipatu zituen Finlandiako eredu arrakastatsuari buruz hitz egin zuenean: 1) ikasleekiko itxaropenak arrakastaren motor gisa, helburuak planteatzea, ikasleen inplikazioa lortzea, ikasteko ingurune positiboa lortzea; 2) laguntza eta oinarri sendoak, ikasleentzako laguntzak ongi diseinatzea eta irakasleentzako laguntzak (bakarrik ez sentitzea); 3) zentrotan autonomia, erabakiak har ditzakete eta euren testuinguruaren arabera helburuak jartzen dituzte. Ez dakit gure testuingururako balio dezaketen.

### **Hizkuntza gaitasunei buruz hitz egiten ari gara, idazten eta irakurtzen jakitea... Zer erlazio eduki dezake horrek teknologia berriekin eta horrek dakarren idazteko eta komunikatzeko moduarekin? Zeren, ez dira berdinak...**

Katalunian moodels-ak erabiltzen hasi dira irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio tresna gisa, eta aldaketa nabaritzen da. Beste maila batean, ikasleek etengabe erabiltzen dituzte sms-ak, chat-ak, posta elektronikoa... eta erabiltzen duten idazkera naturala da, kode propioak dituen. Zenbait Hizkuntzako irakasle hortik abiatzen dira eta proposamen interesgarri eta berri-tzaileak dira. Ikasleen idazkera mota hori aprobetxatzen dute, ikasleek idazten dutenetik abiatzen dira, egiten dutena eta nola egiten duten aztertzen dute. Eta gero, idazteko beste eredu batzuk ezagutzen dituzte. Ikasleek ez dutela idazten esaten da, baina idazten dute, eta asko, baina beste testuinguru batean.

“ Argó programaren ideia unibertsitatea eta Bigarren Hezkuntzaren arteko harremanak estutzen saiatzea da, unibertsitatea Bigarren Hezkuntzako irakasleengana, ikasleengana eta familiengana hurbilduta ”

Ikaslea oso azkar ari da aldatzen. Eta ikasteko moduak ere aldatzen ari dira. Etengabe konektatuta daude, ikasten ari dira, baina, aldi berean, chat-atean... Aldaketa handien atarian gaude.

### **Nola ikusten duzu eskola aldaketa une honetan?**

Eskolak egokitu egin beharko du. Belaunaldi aldaketa dator, irakasle asko erretiratzeko ari dira eta etortzen diren gazteek zailtasun gutxiago dituzte gelan teknologia berrietara egokitzeke. Edonola ere, ez dut uste egokia denik aldaketa teknologietan soilik jarzea indarra. Ongi dago ordenagailuak eta Internet ezagutzeko eta erabiltzeko, baina orain arte esan dugun guztiarekin batera. Hau da, ez dugu santu bat erantzi behar beste bat janzteko. Bi gauza uztartu beharko lirateke: teknologien erabilera eta irakasleek ikasketari buruzko ideia oso argiak edukitzea. Besteak beste: zer den oinarrikoa, nola eraman hori aurrera, ikasitakoa egituratzeko garrantzia...

Eta badago beste puntu garrantzitsu bat ere. Informazioa ez dago liburuetan soilik, beste mundu ireki bat dago: Internet. Mundu horretan mugitzeke irakurleak kritikoa izan behar du. Irakurle kritiko bat kritikoki irakurriz formatzen da, eta irizpidea eta ideologia edukiz. Irakurketa kritikoa bultzatu beharko genuke eskolan.

### **Nola laguntzen zaio ikasle bati irakurle kritikoa izaten?**

Adibidez, testu baten aurrean gauza hauek identifikatzen ikasiz: egilea zein den, haren asmoak eta sinesmenak zein diren, non argitaratua dagoen, zein urtetan, zer nahi zuen, zer defendatzen duen, zein galdera egiten dituen, zein galdera erantzuten dituen, zer ekarpen egiten duen, zein galdera berri sortarazten dituen... Garrantzitsua da testuari distantzia batetik begiratzea perspektibarekin ikusteko. Hori da irakurketa fokatzeko modua.

Lehen Hezkuntzako irakasleen mintegi batean zera proposatu nien ira-



kas-  
leei: ikas-  
leek testu bat nola irakurri jakiteko, orientazio oinarriak eraikitzea. Oso interesgarria izan zen. Batzuek elkarrizketak grabatu eta transkribatu egin zituzten. Harritu egin ninduen LH 4ko ikasle batzuek honako hau esatea andereñoari: “ez diguzu esan nor den testu honen egilea”. Egilea Oscar Wilde zen. “Guk jada irakurria dugu gizon horren testu bat, gustatu egin zitzagun eta badakigu nor den”. Haurrek badute gaitasun hori. Eta alderdi hori ez gutxieste oso garrantzitsua dela pentsatzen dut. Zeren guk egunkari bat irakurtzen dugunean, zenbait artikulu irakurtzen ditugu eta beste zenbait ez, egilearen arabera. Hori ikasi egiten da. Irakurle adituak nahi ditugu eta irakurle aditua irakurle selektiboa da. Irakurle aditu batek egiten duen lehen gauza aurrean daukana bereiztea izaten da. Eta hori, sarean dagoen guztiarekin, irakatsi egin behar da, inoiz baino zorrotzagoa izan behar da. Esate baterako, jakin egin behar da zein iturri diren egokiak, denak ez baitira sinesgarriak. Iturri egokiekin dokumentatu behar da. Hori ikasi egin behar da. Eta horretarako, hezi egin behar ditugu.

### **Bukatzeko, hitz egiguzu unibertsitatean gidatzen duzun Argó programaz. Zer-nolako proiektua da?**

Argonauten itsasontziak Argos izena zuen eta hortik dator Argó proiektuaren izena. Programaren helburua Bigarren Hezkuntzaren eta unibertsitatearen arteko trantsizioa hobetzea da. Hortaz, “unibertsitateko bidairen” laguntza moduan planteatu nuen, non azkenean, Jasonek bezala, urrezko ardilarrua aurkitzen duten, kasu honetan, ikasketak, jakituria.



Programa hau harremanak estutzen saiatzen da, unibertsitatea Bigarren Hezkuntzako irakasleengana, ikasleengana eta familiengana hurbiltzen. Programaren ideia unibertsitatea Bigarren Hezkuntzari irekitzea da, unibertsitatean baitago ezagutza. Unibertsitateak eskaintzen duen markoa aprobetxatzen dugu: hitzaldiak, ikerketen aurkezpenak, erakusketak... eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako ekintzak antolatzen ditugu. Unibertsitatea oso azkar ari da aldatzen (gradu berriak, aldaketa metodologikoak, ebaluazioko aldaketak...) eta programaren bitartez Bigarren Hezkuntzako irakasleak horren jakitun izaten ahalegintzen gara. Horrela baino ez diete lagunduko euren ikasleei goi mailako ikasketak egin nahi badituzte edota euren gelan aldaketak egin nahi badituzte.

### **Azal ieazkiguzu Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat prestatzen dituzuen ekintza batzuk.**

Esate baterako, nobel saridun bat edo antzekoren bat etortzen baldin bada hitzaldi bat ematera, horren berri ematen diegu eta hitzaldirako sarrera errazten diegu. Gainera, gai horri lotutako mintegi bat antolatzen dugu, edota ikerketa talde bat ikusteko bisita. Orain dela gutxi "Pa Negro" filmari buruzko saio bat egin genuen. Filma ikusi genuen, eta gero, Historiako irakasle batek gerra ondorengo gakoak azaldu zituen. Liburuaren egilea (Emili Teixidor) ere etorri zen eta Literaturako irakasle batek elkarriketa egin zion. Azkenik, zineman aditua den irakasle batek filma aztertu zuen eta proposamen didaktiko bat egin zuen. 350 irakasle etorri ziren.

Gai berean aritzen diren Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleentzako mintegiak ere antolatzen ditugu. Adibidez, matematikaren arloan, iaz ikuskari bati Batxilergoko matematikako curriculumaz azaltzeko eskatu genion, eta irakasle talde bik benetan gai horretako ikasgaietan zer egiten

den esplikatu zuten. Batez ere unibertsitateko irakasleak joan ziren entzute-ra. Iristen zaizkien ikasleengandik zer espero zezaketen jakin nahi zuten. Aurtengo ikasturtean alderantziz egingo dugu: ikasketa askotariko matematika-ko lehen mailako irakasleek (ikasgai askotan dago irakasgai hori) zer egiten duten azalduko diete Bigarren Hezkuntzako irakasleei: zer gai lantzen dituzte, zer metodologia erabiltzen duten, nola ebaluatzen duten... Eztabaida interesgarria izango da, dudarik gabe.

### **Eta ikasleentzat?**

Ikasturte honetan Batxilergoko 800 ikasle etorri dira kimikako laborategietara. Egunero goiz osoak pasa dituzte 50nakako taldetan kimikako laborategian. Kimikaren urtea da eta Kimikako Sailak bere ateak ireki nahi zizkien Batxilergoko ikasleei. Guk, geure programatik, saio horiek antolatu genituen eta hainbat gauzatan lagundu diegu: ekintzaren diseinua egiten, zentroekin komunikatzen, izen-ematean, ebaluazioan...

Ikasleak adituen laguntza bila ere etortzen dira unibertsitate-ra, Batxilergoaren amaieran ikerketa lan bat entregatu behar baitute. Horrez gain, Udako Campusa antolatzen dugu eta urtero Batxilergoko lehen maila egindako 180 ikasle etortzen dira. Bi, hiru edo lau taldetan jartzen ditugu eta ikerketa taldetan, laborategietan, sailetan eta abar banatzen ditugu hiru astetan zehar. Euren aukeratzeko dute interesatzen zaien arloa, ikerketa taldeekin kolaboratzen dute eta praktikak egiten dituzte.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Argó programak arrakasta handia du. Zortzigarren edizioa dugu aurtengoa eta oso ongi funtzionatzen du. Jasagarria den proiektua da, ez baitugu ia aurrekonturik behar. Kostu ekonomikoa oso baxua da eta sortzen dituen irabaziak oso altuak.



**“Ikaskuntza sistema on bat eraikitzen laguntzeari” dagokionez, irakasle batek zera esaten zidan: “Baina ikasle batek galdera bati erantzuten baldin badio, utzizu, erantzuna eman dio”. Eta zera erantzuten nion nik: “bai, baina matematikoei esaten dute arazo bat ebazteko modu dotoreak eta baldarrak daudela. Guk bide eraginkorrek eta dotoreak ikasten irakatsi behar diegu. Eta batez ere, bide horiek jorratzeko laguntzak eman”.**

## Kubako eta Euskal Herriko haurrak baturik, liburuen eta antzerkiaren bidez

**Kubako eta Euskal Herriko haurren artean “senidetasun eta elkartasun balioak” sustatzeko helburuarekin, Karibeko uhartean izan dira Ane Mona, Oskola eta Karramarroi antzerki taldekoak iragan otsailean. Bi antzezlan aurkeztu dituzte han, eta horrez gain, bi herrialdeetako haurrek eskuz egindako Adiskidetasun Liburuak trukatu dituzte elkarrekin.**



Adiskidetasun Liburuak motxilan sartuta egin dute Euskal Herritik Kubarako bidaia Ane Mona, Oskola eta Karamarroi antzerki taldeek. Liburu bereziak dira, baina, Adiskidetasun Liburuak. Euskal Herriko bederatzi ikastetxetako haurrek egin dituzte euren eskuekin, eta hitzekin eta, bereziki, irudiekin eta marrazkiekin osatu dituzte. Liburu horien bidez, Kubako haurrei Euskal Herria zer-nolako den erakutsi nahi izan diete, ze hizkuntza dugun, ze ohitura ditugun... Kubatik bueltan, beste horrenbeste liburu ekarri dituzte antzerkilariek Euskal Herriko ikastetxetara, haurkubatarrek euren eskuz egindakoak guztiak, uharteko bizimoduaren berri ematen dutenak.

“Eskolen arteko harremana lantze-

ko eta zubi-lana egiteko helburuarekin” sortu dute antzerkilariek Adiskidetasun Liburuaren proiektua. Herri bakoitzak dituen kultura, balioak eta nortasuna zabaltzeko eta besteenak ezagutzeko helburuarekin sortu zuten proiektua. Parte hartu duen ikasgela bakoitzak bere erara osatu ditu liburuak, eta euskararen eta gaztelaniaren arteko aldeak saihestu ahal izateko, marrazki, irudi, zuhaitzetako hosto, lore, bandera eta mapekin jantzi dituzte lanak. “Benetako artelanak atera zaizkie haurrei, lan mardulak”, kontatu du Rita Naviera proiektuko parte-hartzaileak Kubatik itzuli ondoren.

Hemendik, orotara hogeitabi liburu eraman dituzte Kubara, eta hango ikastetxetatik beste horrenbeste ekarri di-

tuzte, horiek guztiak ere eskuz eginak; han Euskal Herrikoak banatu zituzten bezala, orain, itzuleran, Kuban eginda-koak banatu dituzte hemengo ikaste-txeetan. “Liburu horiek elkartasun eta senidetasun keinu dira”, azaldu du Koldo Zelestinok. “Horiek dira guk zabaldu nahi ditugun balioak; Europako gizarte askotan krisian dauden balioak dira, hain zuzen ere, eta antzerkiaren bidez ez ezik, liburu horien bidez zabaldu nahi izan ditugu”.

### Antzerki Gurutzadarekin, Kuban barrena

Ane Mona, Oskola eta Karramarroi Bilboko antzerki taldeak data berezietan joan ziren Kubara, liburuak eramatera: iragan otsailean, han Antzerki Gurutzada ospatzen zuten egunetan, hain zuzen ere. Guantanamo Baracoara gurutzatu du antzerkiak uhartea otsailean, eta tartean eurekin izan dira Bilboko antzerkilariak ere. Mendialdeko herriak pasatu ditu gurutzadak, 200dik gora, eta haur kubatarrek gutxienez urtean behin antzerki-ikuskitan bat ikusteko aukera izatea zuen helburu. Aurtengoa Antzerki Gurutzadaren 21. ekitaldia izan da. Mendialdean bizi diren haurrak antzokietara edo antzerkia da- goen lekuetara joan ezin direnez, antzerkigileak eurak dira haurrengana mendira joaten direnak, eta, aurtan, euskal antzerkilarien bisitak ere izan dituzte mendialdeko zenbait herritako haurrek.

Antzerkiaren filosofia berbera du hezkuntza-sistemak Kuban, hau da: haurrak dauden lekuetara joaten dira irakasleak, eta, horren ondorioz, oso haur gutxi dituzten ikastetxeak daude Kubako mendialdeko hainbat herrixkatan, hezkuntza jaso gabe haurrik gerra ez dadin.

Koldo Zelestino, Rita Naviera, Izaskun Gabiña, Alaitz Argandena eta Onintze Goitiz antzerkilariak joan dira



gurutzadara, baina proiektua duela bi urte abiatu zuten, Kubako Santiago bisitatu zuten lehen aldian: “Kubako antzerki mugimendurekin harremanetan jarri, eta berehala hasi zitzaizkigun guztiak Antzerki Gurutzadari buruz hizketan. Ekimenaren filosofiarekin segituan egin genuen bat, eta itzultzea erabaki genuen”. Eta halaxe itzuli dira bi urtera, liburuz horniturik.

Liburuz eta antzerkiz horniturik. Obra batekin ez, baizik eta birekin itzuli baitziren Ane Mona, Oskola eta Karramarroi antzerki konpainiak Karibera. Euskal Herrian egin ohi duten bezala, ikuspegi pedagogikotik prestatu dituzte Kuban erakutsi dituzten antzezlanak, eta elkartasun eta adiskidetasun balioak azaleratu dituzte. O�entzeroren historiak izan dira antzeztu dituztenak gurutzadan, eta ikaragarritzko harrera





beroa jaso zuten. “Batuetan, antzokian egin genuen, ikastetxeetan beste batuetan, edo kalean, eta guztietan, haurrek zein helduek besoak zabalik hartu gaituzte; itzelezko harrera egin digute”. Iribarrez betetzen zaie aurpegi Naviera eta Zelestinori uharteko haurren harrera beroa gogoratzean. Komunikabideetan ere izan zuen euskal herritarren bisitak oihartzunik, irratian nahiz egunkarrietan.

Kubako haurren prestutasunaren erakusle, euskal kantuekin egindako koreografiak ekarri dituzte gogora antzerkilariek. Konpainiek, Kubara joan aurretik, hemengo ikastetxeetako haurrek landu dituzten bi abesti bidali zituzten hango haurrei ikas zitzaizten eta, gero, guztiek elkarrekin kanta zitzaizten: Guantanamera abesti kubatarraren euskarazko bertzio bat, eta, bestea, *Uka, uka...keinuka!* izeneko abestia. “Kantuak euskaraz primeran abesteaz gain, koreografia batekin lagundurik eskaini zizkiguten, oso ederra izan zen”.


### Dokumentala: proiektuaren jarraipena

Romelian, Los Naranjos, Felicidad, Palenquen edota Jamaikan bizi izandako guztia filmatu egin dute antzerkilariek, eta dokumental bat egiteko proiektua daukate orain buruan. Kubako haurren egunerokotasuna, bizimodua eta eskolak duen garrantzia azaldu nahi diete Euskal Herriko haurrei, dokumental horren bidez, Adiskidetasun Liburuekin hasitako zubi-lanari jarraipena emanez. Horretarako, harreman zuzena izan dute haur eta hezitzaile kubatarrekin, eta elkarriketarik egin eta filmatu dituzte hango eskoletan: “Harrigarria da mendialdeko hau-



rek duten jakintza eta kultura maila, eta baita antzerkiarekiko erakusten duten jarrera parte-hartzailea ere. Benetan ezagutzeko moduko eredu da Kuban antzerkigintza eta hezkuntza bera zabaltzeko egiten den lana”, dio Zelestinok.

Adiskidetasun Liburuekin hasitako proiektuak, beraz, segida izango du dokumentalarekin. Baina aurrerantzean, ostera ere, Antzerki Gurutzadaren beste ekitaldi batean parte hartuz zurrerik, Kubarekin eginiko harremanak estutu nahiko lituzkete antzerkilariek, eta ez dute baztertzen Adiskidetasun Liburuaren proiektua beste herrialderen batekin abian jartzea ere. “Europar ezagutzen dugun eredutik aparte, badaude munduan kultura handiko beste herrialde batzuk, eta horiek ezagutu eta ezagutarazi nahi genituzke”. ●



## TILA ez da lasaigarria

**Ingeles irakaslea izanik, nekez sinets liteke ingelesaren kontra nagoenik. Ni ingeles irakaslea naiz lanbidez eta, zertan ukatu, ingelesaren irakastearen aldekoa naiz. Izanez ere, hizkuntza oro ikastearen eta irakastearen aldekoa nauzu. Irakatsi bai, baina ez edonola.**

Nafarroa Garaian, erabaki politiko zehatz batzuen ondorioz, TILA izeneko eredu a ezarri dute hainbat eta hainbat eskolatan. TIL sigla horien ordaina, euskaraz, Hizkuntzen Trataera Bateria da, baina inork gutxi baliatzen du. Beraz, joko handia ematen du esateak: hurrenez hurren, "tila" TILA eta "tilde" TILD. Hitz jokoak eta zirtoak, aise.

Tamalez, gaur egun ez dago behar adina ingeles irakasle kualifikaturik hori aurrera eramateko. Eta tamalez badiot, panorama ezagutzen dudalako diot. Ildo horretatik, hainbat urtez ingeles irakasleen irakasle izan den Richard Weyndling-ek agerian utzi du egoeraren larria.

Bestalde, euskarazko D ereduaren irakasle gehien-gehienak EGAdun dira, eta EGA da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailari dagokion baliokidea. Nekez esan daiteke berdin ingelesa irakasle anitzen mailaz. 139/2009 Foru Aginduan ezartzen dira ingelesez irakaste behar diren hizkuntz betebeharrak, baina, lege horrek daukan bigarren xede gehigarrian salbuespenak agertzen dira... Hor dago zi-

rrikitua maila nahikorik ez duen hainbat irakasle sartzeko, "programen beharrak direla eta, hala komeni denean". Salbuespena ohitura bihurtu ote da? Eta horra hemen denok buruan dugun kezka: Nola irakatsiko dute ingelesez maila on-ona izan ezean? Nekez!

TILAn, finean, ikastorduen erdia, "gutxienez 14 saio, espainolez emanen dute, (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 401/2009 ebazpena) eta ingelesa ohiko saioez gain, ikasgaiaren bat(zuk) -zehaztu gabe oraindik- ingelesez. Osotara, 10 saio. Baina irakasgai bat(zuk) emanda -edo irakasgai horren erdia ingelesez emanda- hori al da programa eleaniztuna? Euskaraz, aldiz, 4 baino ez. Hori ez da hizkuntzen trataera bateratua: hori txapuz bat da.

Horren adierazgarri, duela hiruzpatalau aste Berriozarren PSNk antolatutako hitzaldi bat: La Educación multilingüe izeneko afixa ikusi ahal izan genuen... gaztelania hutsean. Itxurak egiteko bederen, bazuten jartzetik "Hezkuntza eleaniztuna" eta Multilingual Education. Baina ez. PSNkoentzat eleaniztuna gaztelania hutsez iragartzen da. Ez nintzen izan PSOEko parlamentari den Arraiza andereak emaniko hitzaldian, baina lepoa eginen nuke hitzaldi osoa gaztelania hutsez izan zela. Hori al da "hizkuntzen trataera bateratua"?

Hizkuntzen irakaskuntzan adituak direnek gaztigatu digute: hezkuntza munduan, lehenago hastea ez da beti hoberena. Umetxiki-txikienekin aritzeke, gainera, irakasle natiboak izanen litrateke egokienak, ikasleek ahoskera onena lortze aldera. Baina ez dago irakasle ingeles natiborik horretarako...

D ereduetan bai, irakasle natibo -euskaldun zahar- asko daude, eta alfabetaturik, EGAdunak. Itsasoan urak arraina nola, hala behar du hizkuntzak inguratu ikaslea murgiltze eredu batean. Eta horregatik ikasten dute euskara D ereduaren, nahiz eta etxeko hizkuntza ez izan.

Oroz gain, D ereduko eskolatan urteak eta urteak daramatzate lanean: zenbaitetan, 30 urteko esperientzia dago. TILA, aldiz, enpirikoki frogatu gabe dagoen eredu bat da, curriculum espezifikorik ere ez duena, eta hainbat eta hainbat erabaki garrantzitsu hartzea ikastetxearen esku geldituko da.

Ez nuke egon nahi ingeles irakasle batzuen larruan, hemendik urte gutxi batzutura piztutako igurikipenak betetzen ez direnean, eta puztutako helburuak betetzen ez direnean. Politikariak finkatutako xedeak betetzen ez diren egunean, "errua", ardua edo erantzukizuna egotziko diote ingeles irakasleari, eta ez frogatu gabeko programa sasi-eleaniztun hauek martxan jarri dituzten politikariak.

Kontuak ez da saio kantitatea handitzea, baizik kalitatea. Ingelesa, beraz, bai; baina ez edonola! Erabaki politikoak izan dira erabakigarriak, ez didaktikoak. Tila egokia lasaigarria da, baina ez TILA.

Horiek horrela, eta ingeles irakasle izanik ere, nire seme-alabak D ereduaren daude apuntatuta, aukerarik onena delako. Berdin pentsatu dute hainbat eta hainbat gurasok bizi naizen herrian, Berriozarren: Mendialdea Eskola Publikoan, 52 ume D ereduaren; 32, berriz, TILAn. ●

Josu Jimenez Maia

## Sakanako ikastolen komunikazio-plana Ikastoletako lana gizarteratuz

Egiten duten lana hobeto komunikatzea, horixe da Altsasuko Txioka eta Iñigo Aritzak ikastolek eta Etxarri Aranatzeko Andra Marik egin berri duten komunikazio-planaren helburua. Indarrak batu, eta Sakanako hiru ikastolek elkarrekin egin dute ikastolaz kanpoko komunitateari nahiz barrukoari begiratzeko komunikazio-plana. “Komunikazioaren gizartean bizi gara. Gauzak egin egiten ditugu, baina ez ditugu komunikatzen, eta komunikatzen ez dena, gizarteari begira, ez da, egingo ez bagenitu bezala da”, dio Txioka ikastolako zuzendari Jone Aretak. Sakanako ikastoletan egiten duten hori sozializatzeko helburuarekin, bada, komunikazio-plana sortu dute.



Lehenik eta behin, ikastola eredu bera gizarteratzeko premia ikusten zuten lanean aritu diren ikastoletako zuzendariak. “Gai horretan atzerapauso batzuk eman dira, jendeak badirudi ez dituela argi zein diren gure berezko ezaugarriak. Horregatik, lehenik eta behin ikastola eredu zabaltzeko premia izan dugu”, azaldu du Aretak.

Komunikazio planak, esan bezala, bi hartzaileratu: bata ikastola barruko komunitatea, bai ikasle-irakasle eta langileak eta baita familiak ere. Eta beste hartzaileratu ikastolatik kanpoko komunitatea sakandarra da.

Barrura begira, ikastolako familiei ikastola barruan egiten denaren berri emateko premia sentitu dute zuzendariak: “Gauza asko egiten dugu, eta ho-

rietako gauza asko onak eta ederrak dira, baina ez ditugu ezagutarazten, familiengana ez da iristen”. Ikastola barruan egiten den guztia familiengana iristea da, beraz, komunikazio-plan honen helburuetako bat. Kanpora begira, al-diz, komunikazio-plan berri hau jarraituz ikastolekin harreman zuzena ez duten familiengana eta oro har herritarrengana iritsi nahi dute, zabaldu, ezagutarazi.

### Ibilbide luzeko komunikazio-plana

Komunikazio-plan honen ezaugarria da iraupen luzekoa dela, hau da, ez dela ekintza konkretu bati begira eginko komunikazio-plana. Hiru urterako plana diseinatu dute, 2013a arte. Hiru ikastoletako zuzendariak aritu dira lan

honetan zuzenki, Txioakako Jone Areta, Esther Garaialde Iñigo Aritzatik eta Adur Goikoetxea eta Itziar Begiristain Andra Mari ikastolatik. Aurreko ikasturte bukaeran hasi eta ikasturte honen hasieran, urri partean amaitu dute plana. Zuzendariak diseinatu duten arren, ikastola barruko komunitate osoak hartu du parte familien, irakasleen eta langile ez dozenteen ekarpenekin osatu baitute txostena. Ondoren ikastolen elkarteko Xabier Oleaga eta Juanjo Gomezekin ere elkartu eta horiek ere aholkatu dute plana, eta ikastolako klaustro eta juntetara aurkeztu dute.

Orain esku arten duten komunikazio plana gauzatu ahal izateko, lehenik eta behin egoeraren diagnostia egin dute. Hiru ikastolak une honetan ze egoeratan eta ze koordinadatan dauden aztertu dute: Ze alderdi ahul dituzten ikastolek, zein indargune, non eragin dezaket... oinarri guztiak finkatzeko azterketa egin dute lehenik eta behin. "Behin akatsak edo hutsuneak identifikatuta, non eragin genezakeen aztertu genuen".

Diagnosiaren ondoren, ekintza-plana diseinatu dute, hau ere kanpora begira eta barrura begira. Kanpoko komunikazioarekin loturik bost helburu nagusi markatu zituzten: ikastola hezkuntza eredu sozializatzea; gizarteari zabaltzea erakundeak egiten duenaren berri; zuzendaritza eta batzordeak iritzi publikoak eta komunikabideek esaten dutenaren berri izatea; komunikabidei ekimen, zerbitzu eta talde iritzien berri ematera; eta kanpo komunikaziorako protokoloak zehaztu eta bateratzea, adibidez emailak bidaltzeko garaian.

Barruko komunikazioari loturik ere, ikastola hezkuntza-eredua sozializatzekeo premia ikusten dute familien artean ere; erakundearen barruko pertsona guztiak informatuak egoteari garrantzia handia eman diote; eta hirugarrenik, komunikaziorako elementu berriak eta sortzaileak garatu nahi dituzte;

horretarako IKTeekin eta Googlek ematen dituen baliabideekin ari dira lanean.

### Ekintza zehatzak

Komunikazio planak hiru urteetan jarraitu beharreko ekintza-plan zehatza jasotzen du, ekimenak sozializatzekeo egingo dituzten jarduera nagusiak eta ekintza zehatzak dagoeneko diseinatuak dituzte. Adibidez, egoitzak ezagutzeko bixitak antolatu eta koordinatu dituzte, ate-irekien ekitaldiak; erakusketen bidez ere ikastolen proiektua jendetartu nahi dute, alde batetik ikastola barruko instalazioetan eginaz erakusketak, ateak gizarteari zabalduz bertara sartu dadin; eta erakusketak ikastolatik kanpo ere egingo dituzte, jendea dagoen lekuetara eramanez ikastoletan egiten dituzten ekimenak.

Ekintza berriez gain, batez ere lehendik egiten ziren gauzei komunikazio-zentzua ematea da komunikazio-plan honek jasotzen duen ideia nagusia. "Filosofian dago plan honek dakarren aldaketarik nagusia", azaldu du Adur Goikoetxea Etxarri Aranatzeko ikastolako zuzendariak, "lehendik egiten genituen baliabideak indartu nahi ditugu, komunikazio-zentzua eman eta plan baten barruan bideratu ditugu". Esate baterako, lehendik egiten dituzten aldizkariari garrantzia emango diete aurrerantzean ere: Iñigo Aritzak eta Andra Marik aldizkariak dituzte, eta Txioan hilabetekari bat bidaltzen diete familiari eta hemendik aurrera "etekin handiagoa" ateratzen ahaleginduko dira.

Hala ere, komunikazio-plana irakasle taldearentzat lan karga handiagoa izan ez dadin arreta berezia jarri dute zuzendariak. "Argi genuen ez genuela irakasle-taldea zamatuta nahi, lehendik ere baditu nahikoa lan. Saiatu gara egiten denari komunikazio zentzua ematea". Dena den, zenbait ahulezi indar bihurtzeko gauza berriak ere sortu dituzte. "Batuetan urteen poderioz egiten ditugu gauzak, baina zergatik egiten ditugun jakin gabe, orain diagnostiarekin eta planarekin irizpideak

finkatu eta gauzei zentzua eman diegu".

### Dagoeneko erabilgarri

Oraindik oso berria den arren, dagoeneko erabili dute tresna gisa komunikazio-plan berri hau. Hain zuzen ere, matrikulazio kanpainari begira estreinatu zuten, datek horrela kointziditu zutelako. Hala ere, berez ez da matrikulazioari begirako kanpaina bat, "baizik eta filosofia orokorragoa duena". Bigarren urratsa Facebooken eta sare sozialetan sartzea izan da. Proba bezala, Txioa ikastolak zabaldu du leihoa Facebooken, eta 54 ume dituen ikastolak berrehundik gora lagun ditu une honetan.

Aurrerantzean, hemendik eta ekainera bitartean, erakusketak egingo dituzte barruko zein kanpoko instalaziotan, eta lehendik ere ospatzen zen ikastola-egunari ere zentzu komunikatiboa emango diote.

Dagoeneko lan tresna gisa martxan jarri duten arren, komunikazio-planak ekarriko dituen emaitzak zenbatzen hasteko garaizegi da oraindik, eta gainera, ikastoletako zuzendariak badakite zenbakitan neurtzen zaila izango dela, "hori ez da gure asmoa", dio Garaialdek. Alabaina, hiru urte barru plan osoaren balorazio orokorra egingo dute.

### Ereduak

Diagnostik hasi, helburuak finkatu, eta helburu horiek noiz eta nola betekeo dituzten zehazten duen ekintza-plana diseinatzeko garaian, Sakanako ikastolek ez dute eredurik izan, ez baitute Euskal Herrian hain epe luzerako komunikazio-plan zabalik ezagutzen. Aurrerantzean, eurak izango dira beste ikastetxe batzuen eredu. "Guk une honetan sumatu dugu komunikazio-plan hau egiteko beharra, baina pentsatzen dugu beste ikastetxe batzuek ere izango dituztela antzeko beharrak, gizartean komunikazioak duen garrantzi eta eragina ikusirik, ikastetxeak sartu beharra dauka hor", dio Aretak. Eta Esther Garaialdek zehaztu du beste ikastetxeren batek eredu behar izanez gero, eurak laguntzeko prest daudela. ●

## Zer da garrantzitsuen irakasleak ongi prestatzeko?



Hiru gauza proposatzen ditut nik irakaslegaiak ongi prestatuta irten daitezen: eredu errealista lantzea, hausnarketari garrantzia ematea eta arlo pertsonala profesionalarekin batera lantzea. Banan-banan azalduko ditut hirurak ondorengo lerrootan.

### Eredu errealista

Hasteko, irakasleen prestakuntzan ikuspegi berri bat ezarriko nuke: ikuspegi errealista. Gaur egun, hiru ikuspegi daude irakaslegaien prestakuntzari dagokionez: eredu tradizionala, bate-tik, eta horren helburua teoria praktikara itzultzea da; praktikan oinarritutako ikuspegia, bigarrenik; eta, hirugarrenik, ikuspegi errealista, etorkizuneko irakasleen esperientziaren eta jakin-minaren bidez teoria eta praktika batzea helburu dituen ikuspegia. Hirugarren hori dago, nire ustez, ikaslearen ikuskera konstruktibistetatik gertuen. Euren jakintza eraikitzeko, eurek munduarekiko duten ikuspuntuaz hausnartzeko eta norberaren nortasuna garatzeko eta bizitzako helburua bilatzeko euren gaitasunean konfiantza duten irakasleak nahi baditugu eskoletan, uste



**Fred A. J. KORTHAGEN**  
HOLANDAKO IRAKASLEEN HEZITZAILEA

dut irakasleen hezitzaileek hirugarren ikuspegi hori hartu beharko luketela eredu, etorkizuneko gure irakasleen ikasketetan ezaugarri horietan beretan sakondu nahi bada.

### Hausnarketaren garrantzia irakasleriaren ikasketetan

Irakasleriaren ikasketetan hausnarketak duen rola da nire proposamenaren bigarren ardatza. Ikuspegi errealistaren oinarritzako ezaugarria da hausnarketa sistematikoetan oinarritutako

esperientzietatik ikastea, ikasketa iraunkor bat lortzeko gaitasunean laguntzen baitu. Hausnarketa sistematiko eta efektiboa ikasi egin behar den zerbait dela nabarmendu dut: norbanako bakoitzak hausnartzeko bere era gara dezake, modu horretan, bere esperientzietan oinarritutako ikasketen kalitatea hobetzeko. Hausnarketaren muina irakaskuntzaren alderdi inkontzienteak kontziente egitea da, pertsonak sentiberagoak izan daitezen hezkuntza aroko egoera garrantzitsuen aurrean.

ALACT ereduari (Action, Looking back on action, Awareness of Essentials aspects, Creating alternative methods of actions eta Trial izenen inizialeetatik dator kio izena ereduari), etorkizuneko gure irakasleen hausnarketarako euskarri moduan erabiltzen dugun eredu horretan, hirugarren fase garrantzitsuari "oinarritzako alderdien kontzientzia" esaten zaio, eta ez kontzeptualizazio abstraktua.

Ereduaren 2. fasean, etorkizuneko irakasleek euren pentsamenduari, sentimenduari, nahiari eta ekintzari buruz hausnartzen dute, eta baita euren ikas-



leen alderdi horiei buruz ere. Irakaste-an zenbait zantzuren arabera jokatzeko dugula jabetzea da helburua, kontzientzia hartzea; zantzu horietako batzuk norberarengandik datoz, haserrea edo urduritasuna, adibidez. Horixe da, hain justu, irakasle berriei sarri zailena gertatzen zaiena: irakasten duten bitartean, askotan ez dira kontziente euren sentimenduez eta beharrez, ezta euren ikasleen sentimenduez eta beharrez ere. Hausnarketari buruzko gure ikuspegia norberaren alderdi inplizitu horiei buruzko kontzientziaren garapena estimulatzeko saiatzen da, irakasle izateko prestakuntza prozesuan ikasi dituzten teoriak baino eragin handiagoa dutela uste baitugu. Sentimenduei buruzko kontzientzia garatzea beharrezko ikusten dugu irakasle enpatiko bat izatera iristeko lanean.

Bigarren faseak hirugarrenaren trantsizioa hausnarketa prozesuko zati garrantzitsua da. Irakaskuntzako arazoak norberaren pentsamenduaren, sentimenduaren, nahiaren eta ekintzen arteko desadostasunetatik edota alderdi horien eta ikasle batek izan ditzakeen alderdien arteko desadostasunetik datozela sinetsirik, gure ikasleak animatu egiten ditugu, desadostasun horiek aurki ditzaten.

### Ikasketaren alderdi pertsonala

Orain arte esandako guztia nire proposamenaren hirugarren ardatzarekin loturik dago, ikasketaren alderdi pertsonalarekin. Ikasleak, etorkizuneko irakasleak eta irakasleen hezitzaileak gizakiak dira, euren beldur, itxaropen, balio eta egiteko konketu eta indibidualekin, eta horrek ez du soilik haien jarreraren eta ikasketaren eragiten, askotan ezaugarritu egiten baititu jarrera eta ikasketa horiek. Ziurrenik, denbora luzean ezaugarri arrazional eta kontzientzetan erreparatu dugu, alderdi gizatiarra kontuan izan gabe.

Nire egiteko pertsonalak lotura du haurren zaintzarekin eskoletan. Denborak erakutsi dit zeinen garrantzitsua den haurraren oinarritzeko ezaugarriak garatzea eta ezaugarri horiek nortasun

eta egiteko bati loturik garatzen laguntzea. Berrito ere, eredu hori erabili behar harko dugu etorkizuneko irakasleekin egingo dugun lanean, eta baita geure hausnarketa propioetan ere, irakasleen hezitzaile lanean. Horregatik eskatzen dut arreta jartzeko oinarritzeko hausnarketan, adibidez, tipularen ereduaren maila guztietan oinarritutako hausnarketan, eta adituaren roletik atera eta sentibera izaten ausartzeko.

Tipularen eredu literaturan 'Batesonen eredu' esaten zaionaren egokitzapena da, nahiz eta Gregory Batesonek inoiz ez zuen argitaratu eredu hori. Sei hausnarketa maila bereizten ditu eredu horrek, eta erakusten du gaitasunei buruz soilik aritzea mugatu egia dela.

Irakasleek inguruneari buruz hausnarketa (lehen maila), adibidez, ikasgela edo ikasle bati buruz; beren hezkuntza-jarreraz (bigarren maila), edo beren gaitasunez (hirugarren maila). Hausnarketa are sakonagoa egiten da azpian dagoen sinesmenari buruzko hausnarketa egiten denean (laugarren maila), eta pertsona bakoitzak bere nortasuna (pertsonala eta profesionala) ikusteko duen moduarekin erlazionatzen denean (bosgarren maila). Azkenik (seigarren maila), bakoitzak munduan duen lekuaz hausnarketa, irakasle bakoitzaren egitekoaz. Maila transpertsonala da hori (batzuetan, espiritualtasunaren maila deritzo), norbanakoarengandik haratago doan gauzeekin lotuta baitago. Irakaslearen inspirazio pertsonalari erreferentzia egiten dio maila horrek, haren idealei eta helburu moralei. Maila sakonenetan ageri dira pertsona bakoitzaren oinarritzeko ezaugarriak. Esate baterako, ikasleei beren buruarengan konfiantza izaten laguntzeko zereginak lotura handia izango du maiz sentiberatasunarekin, enpatiarekin, iraunkortasunarekin eta antzeko ezaugarriekin.

Irakasleentzat garrantzitsua izan daiteke euren oinarritzeko ezaugarriei jabetzea, modu sistematikagoan eta eraginkorragoan erabili ahal izateko. Argi dago, hori kontuan hartuta, irakas-

## Prestakuntza ona ezin da teknikan oinarritu; prestakuntza ona nortasunean eta irakaslearen osotasunean oinarritzen da.



le izango diren prestakuntza prozesuaren ikuspegia pertsonarengan oinarritzen dela, eta ez gaitasunetan; izan ere, beste ikuspegiak, askotan, gaitasun zerrenda batzuk besterik ez dira izaten.

Tickle-k honako hau dio (1999, 136): "Irakaskuntza bere horretan izan dadin, irakaslea da oinarria, pertsona den aldetik", eta gero eta gehiago, ikerlariak eta irakasleen hezitzaileak ere hala onartzen dute. Palmer-ek honako hau dio (1998, 10): "Prestakuntza ona ezin da teknikan oinarritu; prestakuntza ona nortasunean eta irakaslearen osotasunean oinarritzen da". Nire iritziz, pertzepzio horiek aldatu egin behar harko lituzkete irakaslearen prestakuntzako praktika tradizionalak, eta tipularen ereduaren sakoneko maila arreta handiagoa jartzeak beharrezkoa izan behar luke irakaslearen nortasunaren eta profesionaltasunaren arteko oreka lortu ahal izateko.

Idealen galerak eta horiek lortzeko babesik ez izateak eragin handia du irakaskuntza higitzeko eta uzteko orduan. Palmer-ek dioen moduan (1998), "Zer zentzu du?" galderari erantzuna aurkitzea ez da luxu bat, baizik eta behar bat, irakasleek, gorputz eta arima, euren lanbideari eskainirik jarraitzen badute.

Pertsonak bere ongizate eremuak ugaritzeko nahia azaltzen duenean soilik egin ahal izango du benetako aldaketa. ●

# Jardunaldiak

## Irakaskuntza **kultur**aniztasuna

Apirilak 7 • Donostiako Psikologia Fakultateko areto nagusia

## Irakaskuntza **eleaniztasuna**

Maiatzak 11 • Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Iruñea



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



**efektu primarioa**   
lehen hezkuntzako  
1. jardunaldiak



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

apirila  
**berriak**

# Irakaskuntza eremuko kulturantzaren eta eleaniztasunaren kudeaketaz jardunaldiak



“Nola heldu behar zaio Euskal Herriko kulturantzaren eta eleaniztasunari, kontuan izanik euskal kulturaren berreskurapenean eta euskararen normalizazioan murgilduta gaudela?”. Galdera horri eta antzeko beste batzuei erantzunak emateko helburuarekin antolatuta ditu LAB sindikatuaren Ipar Hegoa Fundazioak hausnarketarako jardunaldiak. Apirilaren 7an Donostian Irakaskuntza eta kulturantzaren gaia jorratuko dute, eta maiatzaren 11n Ira-

kaskuntza eta eleaniztasuna: eredu hirueledunak izango dituzte hizpide.

Gaur egungo migrazio fenomenoek dakarten antzantze Euskal Herriko errealitate eta estaturik ez duen eta politikoki eta kulturalki minorizatu dagoen nazio baten ikuspegitik begiratuko diete jardunaldiek, “izan ere, irmoki sinetsita gaude egoera berri hau ondo aprobetxatuz gero, ezin hobea den aukera baten aurrean gaudela egundoko pedagogi berrikuntza bat gauzatu ahal izateko”.

## Irakaskuntza eta kulturantzaren

Donostiako Psikologia Fakultateko areto nagusian izango diren jardunaldien aurkezpena 9:30ean izango da, eta ondoren ikasle etorri berrien beharrei erantzuteko jokamolde eta ildoak aztertuko dira. Elizabeth Coelho Torontoko Unibertsitateko irakaslea mintzatuko da, Eskola kulturantzaren eta eleaniztasunaren irakasteko irakaslearen prestakuntzan aditua baita. Hurrena, 12etan, Pere Mayans Kataluniako Generalitate-

ko Hezkuntza Departamenduko hizkuntza arduradunak Kataluniako errealitatea eta esperientziak azalduko ditu minorizazio politiko eta kulturalki dagokienez. Arratsaldean Coelho berak Gela barnehartzailez tailerra emango du.

## Maiatzaren 11n, eleaniztasunaz

Irakaskuntza eta eleaniztasunari buruzko jardunaldiak Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Iruñean egingo dira. Pili Sagasta Errasti HUEZIKO irakasleak emango du lehen hitzaldi nagusia, eleaniztasun gehigarriaren erronka, alderdi psikolinguistikoa, soziolinguistikoa eta psikosozialetik aztertuz. Ondoren, Itziar Elorza Ikastolen Elkarteko Hizkuntz Proiektuaren arduradunak Ikastolen eleaniztasun ereduaren oinarriak eta ezaugarriak azalduko ditu. Hitzaldiak bukatzeko, eta esperientzien aurkezpenaren aurretik, Richard Weyndling ingelesez irakasteko irakasleentzako prestakuntza programetan aurtua TIL ereduaz mintzatuko da.

## Kataluniara bidaia egingo du Hik Hasik apirilaren 27tik 30era

Apirilaren 27tik 30era egingo dugun bidaia pedagogikoa honen xedea Kataluniako hezkuntza sistemaz kanpo urteetan egiten ari diren aldaketak bertatik bertara ezagutzeko izango da, hainbat ikastetxe interesgarri bisitatuz, eta hezkuntza erakundeekin bilerak egingez.

Lehenik, Generalitateko Hezkuntza arduradunak Kataluniako gaur egungo panorama aurkeztuko dute, eta zein erronka dituzten azalduko. Hurrengo egunetan bisitatu egingo ditugu,

Santa Eulalia de Riuprimer herri txikiko nekazal giroko eskola, Ripolleteko Martinet eta Els Pinetons ikastetxe handi berritzaileak, San Cugatoko haur eskola bat edota Bartzelonako bigarren hezkuntzako Sùnion zinpeko ikastetxea ezagutu ahal izango ditugu.

Bixitekin amaitu ostean, Rosa Sensat irakasleen elkartearekin bilera egingo dugu Bartzelonan. Hezitzaileen formakuntzan 46 urtetan zehar elkarteak egin duen lana eta jaso duen esperientziaren berri emango digute.



# Jardunaldi profesionalak: “Efektu primarioa”

## Lehen Hezkuntzako 1. jardunaldiak

**Maiatzaren 14a, BECen**

Ibaizabal argitaletxeak Lehen Hezkuntzako irakasle-entzako prestakuntza jardunaldiak antolatu ditu: hitzaldi, tailer eta hartu-emanerako eta dibertsiorako uneekin.

Hainbat tailer egingo dira, oso praktikoak. Horiei esker, irakasle goaren eguneroko lanerako eta hezkuntzako profesional gisa hobetzeko tresnak lortuko dira. Tailer horietan, gai hauek jorratuko dira, besteak beste: nola landu oinarritzko gaitasunak, lankidetzako ikaskuntzari buruzko jarraibideak, eta nola gozatu eta irakatsi matematika.

**Informazio gehiago:**

[www.efektuprimarioa.com](http://www.efektuprimarioa.com)



## Korrika 17 Trebiñun hasiko da hilaren 7an, eta Donostian amaituko, 17an

*Euskalakari maitatu, ikasi, ari* izango da aurtengo Korrikaren lema, eta euskalakari guztiak korrika jarri nahi dituzte hil honen 7an hasi eta 17ra bitartean. *Euskalakari* hitzak euskaraz aritzeaz gain, euskararen aldeko lana egiten duena eta hizkuntzarekiko konpromiso estua duen pertsona definitzen du.

Trebiñun (Araban) hasi eta hamaika eguneko lasterketa erraldoiaren ostean Donostiara iritsiko da Korrikaren hamazazpigarren ekitaldia, eta Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren apirilaren 17an jai erraldoia egingo da Donostiako hiriburuan.

Korrikaren atariko gisa, hainbat ekitaldi egin dituzte azken hilabeteetan, euskararen aldeko lasterketarako giroa berotzeko. Hala, eta otsailaz geroztik, Korrika kulturalaren barruan dozenaka kultur ekintza egin dituzte, tartean lau estreinaldi, eta horrez gain, Euskalalik bideo lehiaketa eta unitate didaktiko bat ere egin dituzte.

Aurtengo Korrikak Euskaltzaindia omenduko du, 1919an sortu zenetik egin duen lana eskertzeko. Euskaltzaindiak, “euskarababestea du xede, eta euskarari buruzko ikerlanak egiteaz gain, berari dagokio hizkuntzaren normalkuntzarako arauak ematea”. Horrez gain, helduen Euskalduntze Alfabetatzea oro har, eta Korrika antolatzen duen AEK bera Euskaltzaindiaren magalean sortu zirelako gogoratu nahi du aurtengo ekitaldiak.





**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> PISA neurketako emaitzak hiru urtetik behin egiten dira publiko. Zer iritzi duzu neurketa mota horren gainean?**

**> Neurtu bai, baina, zer?**

Ados nago egiten den lana neurtu egin behar dela esatean. Bestela, nola dakigu zenbat aurreratzen dugun edo duten? Gauza da, zer den neurtu behar dena. Hori bai. Nire ikuspegitik, edukiak baino garrantzia handiago du lagunekin aritzen jakiteak, errespetuzko jarrera izateak, elkartasuna baliosteak, irudimena eta sormena bizitzeak, sentsibilitatea izateak... Hori dena neurtzen al da? Neurgarri al da interesa edo maitasuna? Bokazioa, bilatzea, idealak... Eta balio handikoak izanda kontuan hartu eta balioetsi egin behar dira, baietz! *Begoña G.*

**> Nola hobe liteke neurtu gabe?**

Badaki hitz egiten, badaki matematika, badaki marrazten... Esaldi horiek ezer esaten al dute? Ezer gutxi niretzat. Hitz egiten dakiela, hitzaldi bat emateko gai dela, elkarrizketa zentzudun eta aberatsa egiten dakiela edo lagunei baloia pasatzeko eskatzen dakiela esan nahi al du? Nire ustez, egiten dena ebaluatu egin behar da, indarguneak zein diren, hutsuneak non dauden, garapenaren zein unean aurkitzen den ezagutu beharra dago. Hobetu nahi bada, informazioa izan behar da, eta nola aurreratu hausnartu. Horregatik galdetzen dut: hobetu al liteke neurtu gabe? *Olaia P.*

**> Dena neurtu behar al da?**

Zenbaki hutsetan geratzeko arriskua dugu, zenbakitan bihurtzea. Haur eta gaztetxoekin hori ikusten ari gara. Dena neurtu beharra dago, une bakoitza gerorako geratu behar da, zenbakiak, informeak, argazkiak... edonon eta edonoiz. Dena egiaztatu, ziurtatu, iruditan artxibatu... Eguneroko esistentzia bera, esistitzen dela finkatu behar dugu nonbaiten, frogatu beharra daudagu, une bakoitza bizitzeaz arduratu baino gehiago kezkatzeraino. Nire ustez, dena askoz ere libreago izan beharko luke. Intuizioa erabili, sentsazioa, sentimendua... pertsona bere barneko indarrak garatuz, eraikitzen lagundu. *Lorea E.*

**> Gure gustura egitea hobe**

Askotan gertatzen zaigu kanpotik datorrena oso ona dela iruditzen zaigula. Batzuentzat, kanpokoia beti da hobe. Beste batzuentzat, aldiz, kanpoko guztia txarra da, kontrolatzen du, mugatzen du, intimitatea galarazten du. Baina, hezkunza lana ez al da lan publikoa? Besteekin aritu behar bada: ikasleekin, gurasoekin, lankideekin, udalekoekin, herritarrekin; hau da, herritarrekin, herriko jendearekin, lan publikoa egiten da. Ez al da bidezko lana nola egiten den ezagutzea, zerk funtzionatzen duen ala ez ezagutzea eta nola hobetu hausnartzea? Norberak ez du lana egiten berarentzat soilik, lan publikoak ezagutza eta kontrol publikoak behar ditu; diru publikoa, denona dena, ezin baita edozein modutan erabili. Eta neurtu behar danez, hobe gure gustura egitea, hitz egitea zer, zertarako eta nola neurtu behar den eta egiten denari ahalik eta etekinik handiena ateratzea. *Miel Anjel*

## **Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> Uste al duzu krisi ekonomikoa eragiten ari dela hezkuntzan? Nola?**

## **Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Dinosauroen garaian

Mathilde Elie

TTARTTALO

Natur zientziei buruzko haurrei zuzenduriko dibulgazio lan honek dinosauroen garaira darama irakurlea. Lurrak gaur egungo itxura ez zueneko garaia berri ematen du, trinosauruen eta beste izaki garaikide batzuen berri. Dibulgazio testuak irudi erakargarri jantzita daude. 8 urtetik gorako haurrentzat gomendatua dago bereziki liburua. •



## Nahas-mahasa zientzia, natura eta teknologiari buruz

Ekain Martinez Lizarduikoa

GAIK

Azken hamarkadetan zientziak argitu eta hankaz gora jarri dituen hainbat ideia, teoria eta misterio ikasle eta irakurle euskaldunei eskaini dizkie egileak, zientzia aurkikuntza berriek gure aurreko ideiak edo jakintzak zalantzan jarri baitituzte usu. Salomon erregearen meatzeak edo Marteko uraren historia dira jorratzen diren gaietako batzuk. •



## Nobio bat nire amarentzat

Castillo Suarez

ELKAR

Jagoba botika baten gainean bizi da amarekin, botikari baitu ama. Baina amak arazo bat du, Jagobaren iritzian: ez dauka nobiorik. Hortaz, amarentzako nobio bila hasiko da, hainbat aukera neurtuz; bere lagun Edortaren aita? Igerilekuko soroslea? Botiken garraiolaria? Azkenean iragarki bat ipiniko du Interneten, eta hortik aurrera hasiko dira ustekabeak. •




## Lurra zorua bailitzan

Iñaki Petxarroman

TXALAPARTA

Gogoetarako bidea eman nahi du liburu honek: munduak sekula baino arazo ekologiko gehiago ditu, gizakia- ren esku hartzearen ondorioz, eta Euskal Herria ere ez da salbuespena. Eguzkeraren 1,23 hektarea lur itotzen dira porlan azpian eta 1990etik 2008ra berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa %47 handitu da, adibidez. •



## Loreen ibilaldia

Pat Hutchins

KALANDRAKA-PAMIELA

Liburu hau 1968tik etengabe indarrean dagoen klasiko bat da: marra soil eta tonu azidoko koloreen bidezko abangoardiako proposamen estetiko hau ikusizko eduki handiagatik nabarmentzen da. Testuan, berriz, kateatutako esaldi laburbatzen aurkituko ditugu, kontakizuna grafikoki osatzen duten irudi deskriptibo batzuekin batera. •



## Haserretu zaitezte!

Stéphane Hessel

DENON ARTEAN

Promoizio handirik gabe 'Indignez-vous!' lanaren milioi bat ale saldu dira mundu osoan, eta orain Inma Erreak euskaratu egin du 32 orrialdeko liburuxka. «Erresistentziaren funtsezko arazoia haserrea da», dakar gogora liburuak, eta XXI. mendearen hasiera ere erresistentziarako garaia dela dio Hesselek. •

# ... nora joango gara?

## Peru-Harri museoa

**“Harria nire laguna da eta harriarekin jolas egiten dut”. Horixe esan zien Peru-Harri museora hurbildu ziren Zubiriko haurrei Iñaki Perurena harri-jasotzaileak. Harriarekin jolas egiten du, harriekin solastatu egiten da, harriekin eskulturak egiten ditu, harriak jasotzen ditu... Harria da haren bizitzaren gunea eta baita Peru-Harri museoarena ere. Agertoki horretan dagoena, ikus eta egin daitekeena erakutsi digu Iñaki Perurenak.**

Harriak altxatzeaz gain, harriaren inguruan zerbait egiteko ilusioa zuen Leitzako harri-jasotzaile honek. Leitzan baserri bat erosi eta zenbait gauza egiten hasi zen. Pixkana-pixkana gorpuzten joan zen, eta, gauregun, Peru-Harri museoa historia bat kontatzeko agertoki bihurtu da.

Historia horrek harriarekin, harri-jasotzaileekin eta Euskal Herriarekin du zerikusia. “Harri-jasotzaileen historia beste lekuetan ez bezala garatu da Euskal Herrian”, dio Iñaki Perurenak. “Garai batean harri baldarrak toki askotan jasotzen ziren, baina, hemen, Euskal Herrian, harri baldar haietatik kirola egin da harri koadroak, kubikoak eta biribilak jasoz. Hori da hemen kontatzen dena, hemen, Euskal Herrian berezitasun hori gertatu dela”. Harriak,



mendietan dauden trikuharriak eta zutarriak, hizkuntza berezi bat... hori dena islatzen da Peru-Harrin.

### Kanpoaldeko eskulturak

“Museoaren helburua denei ateari ireki eta gustura xamar ibiliz eta ikusiz gure mundua eta historia zein izan den ezagutzea da”. Horretarako, baserri barruan zein kanpoaldean hainbat gauza ikus daitezke.

Kanpoaldeko zelai luze eta zabalean hiru eskultura erraldoi egin eta jarririk ditu Perurenak: **harri-jasotzaile bat, ezpatadun gizon bat eta beso bat**. “Hiru eskultura horiekin harri-jasotzaileak hemen irauteko zein arrazoi izan dituen esplikatzeko saiatzen naiz. Lehengoak harri-jasotzailearen indar fisikoa adierazten du. Bigarrena Nafarroako Mariskalaren omenez egindako eskultura da, eta barruko indarra adierazten du. Hirugarrenak, berriz, besoak,

mitologia ordezkatzeko du. Herri honek harritik mitoak egin baititu”. Hiru indar horien metaketak azaltzen digu zergatik irau duen hemen harri-jasotzaileak.

“Aldi berean, irauten duen horrek zer esan nahi duen esplikatzeko”, dio Perurenak. “Esan nahi du, gu, euskaldunok, irauten duen herri indigena gara. Europa zaharretik hasita, gure hizkuntzak irau egin du, eta hori gara euskaldunak. Ez besteak baino hobeak eta txarragoak, baizik eta gure hizkuntza dugunak, eta, irau baldin badu, berezitasunen bat badagoelako da. Bizirik irau du, hori hor dago, hori historia da, hori errealitatea da, eta hori gara gu”.

Hiru eskultura horiekin batera **txapel** erraldoi bat ere badago, Perurenak aitaren omenez egindakoa, beti txapela jantzita ibiltzen zelako.

Zelaitik at, baserri ondoan badago beste eskultura erraldoi bat ere: **esku bat**. Inguruko harrietan silaba bakarreko euskarazko hitz asko irakur daitezke: hatz, hitz, hotz, hots, hats, hatz, antz, hontz, huntz... Eskuarekin eta hitz horiekin hizkuntza baten sorrera adierazten saiatzen da Perurena. “Garai batean eskuz adierazten ziren gauzak, eta gero, memento batean, eztarriaz, ahotsez. Hori adierazten du eskultura honek”.

Eskultura horren ondoan **katapultak** bat dago. Zergatik katapultak? Bada, gazteluen kontrako arma bat zelako eta harriak botatzen zirelako.





Baserriaren atzealdetik mendi aldera igota, leize bat dago. Leizearen kanpoaldea margotu egin du Perurenak, mitologiarekin duen lotura hobeto ulertze aldera. "Mitologia fantasia da, kolore asko ditu, bakoitzak nahi dugun kolorea ematen diogu. Kolorea eta fantasia interpretatzeko margotu dut leizea". Euskal Herrian hainbesteko pisua izan duen mitologia lantzeko aukera ematen du leizeak.

### Baseri barrukoa

Baseri barruan ere bada zer ikusia. Beheko solairuan, nola ez, harriak, Iñaki Perurenak hainbeste aldiz jaso dituen harriak. Erakustaldiak egiteko prestakua dauka: txalekoa eta gerrikoa jantzi, belaunak eta harriak erretxinarekin igurtzi, ez irristatzeko, eta harriak jasotzen ditu, bertaratutakoek ikus dezaten. Baina ez ikusi soilik, animatzen denak harri jasotzen proba egiteko aukera ere izaten du, bai txikiek eta bai handiek, neurri eta pisu askotariko harriak baitaude aukeran! Hori dena, noski, Perurenaren istorio, pasadizo eta esplikazioekin jantzita.

Perurena aita-semeen historia kontatzen duen bideoa ere ikus daiteke.

Lehenengo solairuan harri-jasotzaileen argazkiak, harri gehiago, bertsoak... denetarik dago. Eta goian, ganbaran, baserriko tresna eta erreminta ugari. Garai bateko bizimodua nolakoa zen irudikatzen laguntzeko leku aproposa da.

### Denentzako moduko menua

Museoaren helburua harriaren omenez zerbait egin eta horrek bizia izatea da. Eta bizia izateko, jendea behar da, denetako jendea: eskoletakoak, adinekoak... Horrexegatik, denentzako moduko menua prestatzen duela dio Perurenak. Adinaren eta interesaren arabera moldatzen ditu esplikazioak eta aipatutako lekuen ikustaldiak. ●

## PERU-HARRI MUSEOA

Peru-Harri museoa

Tel.: 659 701 045

LEITZA



### Kokapena:

Leizatik Uitzirako NA-1700 errepidea hartu eta herritik 1,5 kilometrora, eskuin aldera harrizko esku baten eskultura duen bidegurutze bat dago. Bide hori hartu, eta museora iritsiko zara.

### Ordutegia:

Astegunetan: aldeztatik ordua hartuta.

Asteburuetan: 10:30etik 14:30era

Museoa azalpenekin nahiz azalpenik gabe bisita daiteke.

### Prezioa:

Txikiek 2 euro

Helduek 3 euro

Bisita gidatuak eta aurrez hitzartuak, pertsonako 4 euro



# atzeko atetik



**Nora IZAGIRRE**

DISEINATZAILEA

Duela hilabete gutxi gure denda berria ireki dugu Donostia erdialdean ahizpa eta biok. Urte batzuk daramatzagu arropa bildumak diseinatu eta saltzen, eta momentu egokia iritsi dela ikusitakoan, gure proiektu berri eta pertsonal honi heldu diogu. Buruhauste, ilusio eta erabaki askoren artean, dendako dekorazioan pentsatu behar...

Ez dakit zergatik, baina txoriak etortzen zaizkit burura. Perikito batzuen serigrafia zahar bat erosi nuen enkantean mostradore atzean jartzeko, gero uste-

## Beti txori artean...

kabeen galdu zena, eta kaiola beltz bat jarri dugu apalean. Lucie Saint-Leu Parisko diseinatzailearen pitxi bildumako hainbat pieza ere salgai jarri ditugu dendan, eta berehala jantzi ditut soinean enara beltzak irudikatuta dituen belarrikakoak, bada zerbait bereziki erakartzen nautena...

Txikitako oroitzapenak etortzen zaizkit gogora, Lasarteko Andre Joakina-eneako jolas garaiak. Gogoan dut nola gutako bakoitzak etxetik guretzat berezia zena eramaten zuen, batzuetan jostailu bat, bestetan ipuin bat, edota animalia bat. Eta egun horretan zuk zeureganatzen zenuen atentzio osoa. Txoriak ziren askotan lagunen jostailu, ai ene!... pentsatze hutsak ere hotzikara ematen dit. Ezagutzen nauenak badaki gaur egun izugarrizko fobia diedala txoriei... Horren arrazoa bilatzean

beti joaten zait burua jolas garai haietara. Kaletxori txiki bat datorkit burura, indar guztiak batuz ukitzera iritsi nintzen uso (orduak niretzako) erraldoi bat (ustez azkenaldiz nire bizitzan), eta HONTZA bat. Hontza hitza idazteak dardara eta guzti sortarazten dit gorputzean barrena... Momentu haietan beldurra ez bazen ere hain nabarmena, ez nituen badaezpada jolas haiek lagunekin konpartitzen, neure kasa ibiltzen nintzen zehar begiradak botaz.

Baina, badirudi zehar begiratzen banuen ere, barru-barruan gorde ditudala bizipen haiek eta txikitako ernaldutako beldur handi horri aurre egin nahi diodala. Edo besterik gabe, hain barruan gordetako ikastolako oroitzapen haiek oso nireak direla, denda prestatzea bezalaxe, eta, bertan, nire txikitako zati bat gorde nahi dudala.... ●



***Keinu-hots koordenadan ez daukagu haur marginaturik, ez euskaldun, ez erdaldun, denok elkarrekin komunikatzen ari baikara, unibertsa den espresioaren bidez”.***

**Imanol Urbietta**

# ZIENTZIA UDALEKUAK 2011



Izan ausarta: eman  
izena, eta bizi uda  
zirrargarri bat!

Aurtengo udan,  
zientziaz blai!

Abentura, esperimenduak, natura,  
ur-jolasak, irteerak...

Aprobetxatu eta gozatu udaz,  
gozatu zientziaz.

Izen-emateak

<http://udalekuak.elhuyar.org>

Izena emateko epea  
apirilaren 4tik 15era

Informazio gehiago

<http://udalekuak.elhuyar.org>

tel.: 943 36 30 40 (Orduategia: 9.00-14.00)

12-14  
urte

14-16  
urte



Zientzian  
ELHUYAR  
Komunitateak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

# efektu primarioa

lehen hezkuntzako  
1. jardunaldiak

**BECen**  
Bilbao  
Exhibition  
Centre  
maiatzaren 14an

informazio gehiago eta izen-ematea:  
[www.efektuprimarioa.com](http://www.efektuprimarioa.com)  
[www.efectoprimario.com](http://www.efectoprimario.com)

 Atsegin dut

ibaizabal  
1990-2010

